


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **IDAZKETAREN LANKETA LHn: BI ESKOLETAKO METODOLOGIEN AZTERKETA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Mugica Lekuona, Naiara

ZUZENDARIA: Rodriguez Miñambres, Paloma.

**2022-2023 Ikasturtea**

## **LABURPENA**

Gradu Amaierako Lan hau idazketaren didaktikara zuzenduta dago, helburu nagusia Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko gelako idazketan eta honen irakaskuntzan sakontzea izanez. Alde batetik, idazketak duen garrantzia azpimarratu da, honen garapenak suposatzen dituen faseak ezagutu eta metodologia desberdinak proposatu dira. Bestalde, kasu-azterketa ikerketa metodoa erabili da lau irakasle elkarrizketatuz. Egoera desberdinetan aurkitzen diren bi eskoletan idazketa irakasteko erabiltzen diren metodologiak ezagutu eta aztertu dira. Jasotako informaziotik abiatuta, ikerketa honek bi eskoletan erabiltzen diren metodologiaren arteko konparaketa egitera eraman du, ondorioztatuz metodologia desberdinak ezagutzea onuragarria dela irakurketa-idazketaren irakaskuntza-ikaskuntzarako, ikasle taldearen arabera moldatuz eta bat baino gehiago erabiliz. Hortaz, gogoeta eta hausnarketara bultzatu nahi izan da.

**Hitz gakoak:** Ikaskuntza, irakaskuntza, idazketa, idazketa-irakurketa, metodologia.

## **RESUMEN**

Este Trabajo de Fin de Grado está dirigido a la didáctica de la escritura, siendo su objetivo principal profundizar en la escritura y su enseñanza en la clase del primer ciclo de Educación Primaria. Por un lado, se subraya la importancia de la escritura, se dan a conocer las fases que este desarrollo supone y se han propuesto distintas metodologías. Por otro lado, mediante entrevistas a cuatro profesoras se ha utilizado el método de investigación del estudio de caso. Se han reconocido y analizado las metodologías utilizadas para la enseñanza de la escritura que se llevan a cabo en dos escuelas diferentes. A partir de la información recogida, esta investigación ha llevado a comparar las metodologías utilizadas en los dos colegios, concluyendo que el conocimiento de diferentes metodologías es beneficioso para la enseñanza-aprendizaje de la lectoescritura, adaptándola al grupo de alumnos/as y utilizando más de una. Se trata, por tanto, de estimular el pensamiento y la reflexión.

**Palabras clave:** Aprendizaje, enseñanza, escritura, lectoescritura, metodología.

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>2. JUSTIFIKAZIOA</b> .....	<b>3</b>
<b>3. MARKO TEORIKOA</b> .....	<b>4</b>
3.1. Zer da eta zertan datza idazketa?.....	4
3.2. Idazketa lantzearen garrantzia.....	7
3.3. Idazten ikasteko prozesua.....	9
3.4. Idazten irakasteko metodologia desberdinak.....	13
<b>4. HELBURUAK</b> .....	<b>18</b>
<b>5. METODOLOGIA</b> .....	<b>18</b>
5.1. Eskolen aukeraketaren justifikazioa.....	19
5.2. Datuak biltzeko tresna eta prozedura.....	19
5.3. Parte-hartzaileak.....	23
<b>6. EMAITZAK</b> .....	<b>24</b>
6.1. Diseinu didaktikoa, programazioa eta materiala.....	24
6.4. Idazketaren sustapena.....	25
6.5. Umearen inguruko kanpo faktoreak.....	26
6.6. Irakaslearen papera eta ebaluazioa.....	27
<b>7. ONDORIOAK</b> .....	<b>31</b>
7.1. Diseinu didaktikoa, programazioa eta materiala.....	31
7.2. Idazketaren sustapena.....	32
7.3. Umearen inguruko kanpo faktoreak.....	32
7.4. Irakaslearen papera eta ebaluazioa.....	33
<b>8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK</b> .....	<b>35</b>
<b>9. ERREFERENTZIAK</b> .....	<b>36</b>
<b>10. ERANSKINAK</b> .....	<b>40</b>

## **1. SARRERA**

Gradu Amaierako Lanaren bidez azkeneko lau ikasturteetan bereganatutako konpetentziak eta ezagutzak aplikatu dira, ikaskuntza berri bat ere suposatuz. Honen helburu nagusia idazketaren didaktikan sakontzea eta beraz, hau gehiago ezagutzea izan da, ikerketa baten bidez ere errealitatea ezagutuz. Lana idazketan oinarritzen den arren, argi izan behar da irakurketa-idazketaren irakaskuntza-ikaskuntza dela, irakurketa eta idazketa batera doazelako.

Idazketa zein irakurketa egunero erabiltzen ditugu, albisteak irakurtzeko, zerrendak egiteko, apunteak hartzeko... Baina izaki bizidun bezala komunikatzeko behar ditugu, hau da, idazten jakitea behar bat da. Idazketari dagokionez, eta lan hau honen hausnarketa eta azterketara bideratuta dagoelarik, aipatzekoa da, oso normalizatuta eta barneratuta dugun zerbait izan arren, zer den eta zertan datzan zehaztea zaila dela eta iritzi desberdinak daudela adituen artean. Hurrengo orrialdeetan idazketaren ikaskuntza hiru etapetan (etapa aurre-kaligrafikoa, etapa kaligrafikoa eta etapa post-kaligrafikoa) banatzen dela eta umea gaitasuna ia bere osotasunean bereganatzeko bost faseetatik pasatu behar dela ikusiko da. Horrez gain, lan honetan lau metodo nagusietan barrendu da: analitikoa, sintetikoa, mistoa eta konstruktibista.

Hezkuntza Sistemaren helburu nagusietako bat umeak alfabetatzea, beraz, irakurri eta idazteko gaitasunak bereganatzea da. Horretarako irakasleek irakurketa idazketa den gaitasun hau lortze aldera aurrera eramane beharreko prozesua era egoki batean ezagutzea premiazkoa da. Horrenbestez, lan honetan bi eskoletako lan egiteko moduak ikertu dira, elkarrizketatutako irakasleen bizipenetatik abiatuta. Lehenik hauek prestatutako jarduerak eta horien helburuak ezagutu dira, eta ondoren, idazketa eskoletan sustatzeko baliabide eta momentuak erakutsi dituzte irakasleek. Jarraian, umearen gain ez dauden hainbat faktoreek (familia, jaiotza eta generoa) idazketaren ikaskuntzan eragina al duten ezagutu da eta azkenik, irakaslearen papera azpimarratu eta ebaluazioen inguruan aritu da. Horrekin, idazketa den prozesu zabal eta konplexu honen ezagutzak partekatu nahi dira etorkizuneko irakasle, egungo irakasle diren zein edozein pertsona idazketaren jardunbidez ezagutu eta hemen lortutako ondorioetatik ere hausnartu dezan.

## **2. JUSTIFIKAZIOA**

Gradua hasi nuenetik zalantza handia izan dut hainbat ikasgaietan, etorkizuneko irakasleek gauza baliagarriak ikasten ditugu unibertsitatean? Irakasten ikasten al dugu? Arlo desberdinetako didaktika ezagutzea eta hau praktikan jartzea oinarri izan beharko litzateke irakasgai gehienetan. Nik jakintza batzuk izan ditzakedalako, baina irakaskuntzan jakintza

horiek transmititzen jakitea eta ikasleen adinera egokitzen jakitea da garrantzitsuena. Ez duelako ezertarako balio zerbait jakiteak baina ez irakasten jakiteak.

Irakurketa eta idazketa oso mundu zabal eta konplexuak iruditu zaizkit horiek ikasi eta irakasteko garaian. Hezkuntza Sistemaren helburu nagusietako bat gizarteko pertsonak alfabetatzea da, eta honen ardura gehiena irakasleen eskuetan dago. Unibertsitateko lehenengo mailako 'Komunikazio-gaitasunaren garapena - Gaztelania eta Euskara - Lehen Hezkuntzan I' irakasgaiaren didaktikaren arrastorik ez, eta hirugarren mailako 'Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika' irakasgaiaren kanpoko unibertsitate batean burutu nuen. Azken honetan, literaturan eta testuen azterketan sakondu nuen nagusi, hizkuntzaren didaktikan hutsune handia antzemanaz.

Pertsona arduratsu eta langilea naiz. Alde batetik, unibertsitate barnean ez bazen, kanpoan bilatuko nuke hizkuntzaren didaktikaren inguruko informazioa ongi egitearen ardura dudalako eta hutsune nabaria ikusten nuelako nire formakuntzan. Hori dela eta, aukera paregabea ikusi nuen gai honetan sakondu eta ikastea Gradu Amaierako Lanaren bidez. Gai honek nire jakin-mina piztu egin zuen eta kuriositatea eta interesa ezinbestekoa iruditzen zitzaizkidan lanean gogotsu aritzeko.

Practicum II-a LH-ko lehenengo mailan egin nuen eta bertan, ikasleek idazten hastean egindako hastapenak zein eskolak hau lantzeko erabilitako formak ezagutzeko aukera izan nuen. Oso interesgarria begitandu zitzaidan ikasle bakoitzaren aurrerapena ikustea eta gainera, hauen arteko konparaketa egiteko aukera ere izan nuen. Irakurketa eta idazketa pertsona baten garapenean oso garrantzitsuak diren alderdiak dira eta etorkizuneko irakasle gisa, honen parte handi bat nire ardura delarik, honetan ongi prestatua egotearen beharra sentitu dut eta hein handi batean lortu egin dudalakoan nago.

### **3. MARKO TEORIKOA**

Lau atal nagusitan banatu da lan honen marko teorikoa. Lehenik, idazketa zer den eta zertan datzan azaldu da, jarraian hau lantzearen garrantzia azpimarratzen da, ondoren idazten ikasteko prozesua aztertu da eta azkenik idazten irakasteko metodologia desberdinak aurkeztu dira.

#### **3.1. Zer da eta zertan datza idazketa?**

Gure gizartean modu autonomo eta arduratsuan bizitzeko, irakurri eta idazten jakitea ez ezik, irakurle eta idazleak ere izan behar dugu (Fons, 2004). Hori dela eta, giza bizitzaren

eta kulturaren testuinguru guztietan daude irakurketa eta idazketa, hauek gizakiaren lau komunikazio-trebetasunetako bi izanik (Gómez, 2020). Idazketa hizkuntzan gailentzen den forma da, eta, ondorioz, ikasten den azkena (Myklebust, 1965, apud., Ramírez eta besteak, 2013). “Hizkuntzari buruz erruz hausnartu eta eztabaidatu da, aspalditik gainera, gizakiok komunikatzeko dugun modurik behinena, bereziena eta funtsezkoena baita” (Kasares, 2018-19, 15. or). Zehazki eta laburbilduz, idazketa ahozko hizkuntzaren soinuen (fonemen<sup>1</sup>) eta honi dagozkien irudikapen grafikoaren (grafemen<sup>2</sup>) arteko elkarrekotasunaren printzipioan oinarritzen da, hizkuntzen araberako salbuespen gehiagorekin edo gutxiagorekin (Oihartzabal, 2000, 251. or).

Askok idazketa gizakiak asmatutako kode bat dela diote eta bat datoz idazketa komunikatzeko bide dela. Idazketa letrak marrazteko jardueratik hurrunago doan prozesua da, hitzak eta paragrafoak eratuz; hortaz, idazketak funtzionaltasun bat du: komunikazioa ezartzearena, kode idatziaren bidez mezu bat transmititzearena (Peralta eta Resurrección, 2021). Era berean, idazketa, bere izaeragatik, hizkuntzaren irudikapen grafiko bat da, zeinu konbentzional sistematiko eta eraikigarriak erabiltzen dituen testu bat sortzeko; beraz, idazkuntzak ahozko mezua transmititzeko funtzioa du; logikaz eta ordenaz grafiatzen diren letren bidez, modu honetan ideiak eraiki eta komunikatzeko (Llata, 2019). “Hizkuntza jarduera bakoitza, helbururen bat lortzeko bide dena, hizketako ekintza bat da, eta ondoko honetan oinarritzen da: ahozko nahiz idatzizko mezu baten kodetzean edo deskodetzean” (Kasares, 2018-19, 17. or). Hau honela, eta idazketa kode gisa ulerturik, “idazteko erabili ohi diren zeinu grafikoak ahozkatutako hitzen zati baten ordean daudela konturatutakoan emango du haurrak urratsik garrantzizkoenetakoa hizkuntza idatzari buruz moldatzen ari den ezagutzan” (Oihartzabal, 1996, 17. or).

Pilar Monje-k (1993) ere idazketa kode bezala ulertzen duela adierazten du, baina idazten eta irakurtzen irakastea kode hau ulertzeaz baino haratago doa: irakurtzen eta idazten irakastea ez da hizkuntza idatziaren kodea erabiltzen irakastea soilik. Irakurtzen eta idazten irakastea irakurleak eta idazleak egitea da, ikaskuntza horietan etengabe aurrera egin dezaten. Ildo horretatik, Oinarritzko Curriculum Diseinuan oinarrituta, idazketa ez da soilik kodetzea, baizik eta testuak sortzea ere; eta irakurketaren kasuan, deskodetzea ez ezik, aldi berean testuak ulertzea ere bada (Gallego, 2016).

---

<sup>1</sup> Fonema: hizkuntza-unitate txikiena da, izaera abstraktukoa, hitzak osatu eta bereizteko erabiltzen dena (Oihartzabal, 2000, 250.or).

<sup>2</sup> Grafema: hizkuntza baten fonemak irudikatzeko idazketan erabiltzen den unitate grafiko txikiena da (Oihartzabal, 2000, 250.or).

Hala eta guztiz ere, beste hainbat aditurentzat idazketa ez da kodea. Hasteko, idazketa sozialki antolatutako sinbolo-sistema bat da (Ferreiro, 1999). Horrez gain, idazketa hizkuntzaren adierazpena da, ez kodea, beraz, hizkuntza idatzia ezin da soilik letrak ezagutzera eta horien soinuaren transkripziora mugatu (Ferreiro, 1999). Idazketa kodea baino zabalagoa den zerbait da; “bistan da idazketa jarduera konplexua dela, hizkuntza prozesatzeko trebetasun bereziak eskatzen dizkiela ekoizleei, eta idazten ikastea ez dela, maiz oso modu sinplistan ulertu denez, kode berri bat eta kode berri hori erabiltzen ikastea eskola-umeek ezagutzen dituzten ahozko erabilerak irudikatzeko” (Guasch, 2009a, 263. or). Hori horrela, idazkera forma da, notazio alfabetikoaren sistema eta karaktere eta konbentzio grafiko ez-alfabetikoen (puntuazio-markak, letra larriak, azpimarratuak, etab.) multzoa (Fons, 2004). Era berean, idazkera komunikatzeko funtzioa duen heinean, idatzizko hizkuntza diskurtso-formak osatzen dituzten erabilera-baldintzen mendeko tresna da (Fons, 2004). Idazten jakitea, eta beraz, idazle ona izatea, idatzizko testuen bitartez koherentziaz komunikatzeko eta kultura orokorreko gai bati buruzko testu luzeak sortzeko gai dena da (Cassany eta besteak, 1994).

Testu bat sortzen dugunean, ikusezina dena (ahozko hizkuntza edo pentsamendua) ikusgarri bihurtzen da (idatzizko hizkuntza) (Martínez, 2012). Testu idatziak aukera ematen du besteek eta guk geuk egindako errealitatearen interpretazioak objektu material eta ukigarri batean finkatzeko, baita objektu horren gainean jardutera ahalbidetzen du ere (Fons, 2004). Honen harira, idazketa praxia eta hizkuntza dela ere esan daiteke, ideiak eta oroitzapenak modu iraunkor batean erregistratzeko bide bat da, truke-metodo bat eta komunikabidea (Ramírez eta besteak, 2013). Idazketa, adierazpen-hizkuntzaren forma da, pentsamenduak eta sentimenduak ideia bihurtzeko sistema sinboliko-bisuala izanik (Myklebust, 1995, apud., Ramirez eta besteak, 2013).

Denbora behar da idazten ikasteko eta argi izan behar da haur bakoitzak bere momentua aurkituko duela, bakoitzak bere erritmoa duelako eta bakoitzak honen beharra sentituko duelako berandu baino lehen. Horregatik kontuan izan behar da idaztea alfabetoa ezagutzea edo hitzak osatzeko letrak elkartzea baino prozesu konplexuagoa dela; hots, hitzeko komunikazioa sustatzeko xedearekin, ideiak modu koherentean adierazteko giza gaitasuna da (Cassany, 2005, apud. Peralta eta Resurrección, 2021). Idazketa, umeak bere kabuz forma natural batean garatu behar duen lana da, bere izaera ludikoaren parte bezala aurkitu eta ezagutu behar duen zerbait delako, irakaslea honen gidari izanik (Gomez, 2020).

### **3.2. Idazketa lantzearen garrantzia**

Hasieran aipatutako moduan idazketa gure egunerokotasunean dago, ondorioz, beharrezkoa dugu honen ezagutza eta ikaskuntza. Idazketa eskolan lantzea ardura handikoa da, eskolatik kanpo garrantzitsua delako, eta ez alderantziz (Ferreiro, 1997, apud. Ferreiro, 1999). Gainera, idazketak zeregin garrantzitsua du haurren garapen kulturalaren prozesuan (Vigotsky, 1995, apud., Ramirez eta besteak, 2013). “Tresna-jakituria garrantzitsuenetako bat da, bai ikaskuntza prozesu bererako, bai bizitza heldurako ere, eta jakituria hori ia erabat eskolaren eremuan ikasi beharrezkoa da” (Jimeno, 2004, 8. or).

Hori dela eta, alfabetatuak izateak abantaila eta gaitasun ugari dakartza gizarte honetan bizitzeko. Irakurketaren eta idazketaren irakaskuntza ez da soilik trebetasun teknikoko lan gisa planteatu behar, baizik eta mundua ulertzen laguntzen duen prozesu eta ezagutzak barneratzeko baliabide gisa, jarduera mekaniko soil bat baino gehiago direlako (Ramirez eta besteak, 2013). Baita idaztea, gogoeta egiteko, eraikitze eta munduaren ikuspegia antolatze modurik zehatzena ere (Monje, 1993). Horregatik, idaztea informazioa gordetzeko eta espazioan eta denboran distantzia jakin batera dagoen beste pertsona bati transmititzeko modurik eta baliabide egokiena da (Gomez-Cruz, 2020).

Hori guztia eskolaren ardurapean dago. “Eskolak ikasleengan idazmen egokia garatu behar du, idatziz gauzak egoki adierazteko gauza izan daitezen. Horregatik, hezkuntza etapa guztietako helburu orokorretako bat da, hasi Haur Hezkuntzatik eta Batxilergora arte” (Jimeno, 2004, 8. or). Irakurketa eta idazketa ulertzeko mekanismo motorrak, eskuak eta, batzuetan, entzunezkoak behar izanda ere, zifratzeko, deszifratzeko eta interpretatzeko prozesua adimenaren funtzioa da, eta eskola-testuinguruan indartu egin behar dira mekanismo horiek (Garduño, 2019). Gainera, “gure gizarte mendebaldarretan, idatzizko hizkuntza funtzio-sorta zabala du, eta eskola-umeak funtzio horietarako prestatu beharra dago eskoletan” (Guasch, 2009a, 265. or). Beraz, irakasleek argi izan behar dute umearen testuinguruaz baliatu beharko liratekeela idazketa irakasteko. Ikaskuntza zein testuingurutan egiten den baloratzea funtsezkoa da ere, ikaslearen interesekin lotzeko; horrela, subjektuaren kanpo-esperientzia “aprobetxatzeaz” datzan komunikazio-prozesu bat bultzatuko da (Gallego, 2016).

Aurreko puntuan aipatutakoa berriro ekarriz, ezinbestekoa da jakin edo zehaztea nola ulertzen den idazketa, hau da, Daniel Goldin-ek, idazketa kode gisa ulertzen bada, ikaslea pasiboa izango dela dio, kodetze bat ikasten duelako; aldiz, adierazpen gisa ulertuz gero, ikaslea horren inguruan hipotesiak egingo ditu (Ferreiro, 1999). Idazketaren irakaskuntza oso berezia eta umeen ikaskuntzan garrantzitsua den lan bat dela argi dago, beraz, honetan



laguntzeko xedearekin, hurrei irakurtzeko eta idazteko aukera anitzak eskeintzea nahitaezkoa da, bai irakurketa-idazketa ahalbideratzeko baita dagoen lekutik abiatuz aurrera jarraitzeko ere (Bilbatua, 1996). Beraz, irakaslearen proposamen didaktikoek eta ikaslearen borondateak, hasierako desmotibazioa eta interes eza gainditzen saiatu beharko lirateke (Cassany eta besteak, 1994). "Hurrek idazten dihardutenean argi eduki behar dute zein puntutatik abiatuta eta zertarako idazten duten" (Ibarra, 2009, 15. or). Hau gehiago zehaztuz, idazten ikasten hasterako garaian umea "zertaz jardungo den, zein solaskiderentzat, zer helburuz eta idatzizko zein genero egin behar den, horiek denak jakitea idazketa-jarduerak bete beharreko nahitaezko baldintza" da (Guasch, 2009b, 287. or). Irakasleak testuak egitera bultzatu behar ditu ikasleak: ideiak bilatu eta ordenatzera, zirriborroak egitera, akatsak berrikustera, presarik ez izatera eta gauzak ondo egitera (Cassany eta besteak, 1994). Amaitutako produktuari eta lan-prozesuaren zuzenketari garrantzi bera eman behar zaie (Cassany eta besteak, 1994).

Umearen idazketa irakasterako garaian hurraren testuinguruaz baliatu behar denean esatean, proposamenak egiterako garaian hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

Gaur egun idazten irakasteaz diren proposamenek honako ideiak jartzen dituzte erreferentziazat: idazteak eta idazten ikasteak izaera soziala dutela, idazketa egoera errealean zentratzea komeni dela, idazketari buruzko eta idazten sartzen diren jakintzei buruzko gogoeta bultzatu behar dela, eta irakasleek idazketan parte hartu behar dutela, arazoak konpontzeko laguntza-sistemen bitartez (Guasch, 2009b, 331. or).

Garrantzitsua da idazketa modu integralean irakastea, eta ez modu isolatuan, haurrak testuen produkzioan haien testuinguru erreala eta soziala erakutsi behar dutelako (Peralta eta Resurrección, 2021). Hurraren zuzeneko esperientziarekin lotu behar dira proposamenak, ahal den guztietan, idazteko eta idazteko hizkuntza; hau da, hitz, kontzeptu eta forma linguistiko berriak pixkanaka-pixkanaka eta progresiboki sartu edo eskeini behar zaizkie (Gomez, 2020). Hori dela eta, irakasleen ardura ikasleek ikaskuntza esanguratsu bat jasotzea den heinean, hurraren errealitatean zentratutako irakurketa-idazkera prozesu bat garatzea lagungarria da (Gomez, 2020). Ikaskuntza hori ulertzea eta bereganatzea elementu instrumental gisatzat hartuz bultzatzen du; haurri ezagutzaren ateak irekitzeaz gain, bere egunerokotasunerako eta bizitzarako beti erabilgarria izango den gaitasun bat bereganatzen duelako (Gomez-Cruz, 2020). "Haurrak era automatikoan idazten ikasten duenean izango du idazteko askatasuna, nahi duena idazteko askatasuna; bien bitartean, eskuaren, gorputzaren eta buruaren mende egongo da" (Ibarra, 2009, 33. or).

Horrez gain, idazketaren ikaskuntzarekin hasi aurretik, idazle desberdinek umearen heldutasunaren beharra dagoela azpimarratzen dute.

Una vez que el maestro ha llegado al convencimiento de que el niño ha alcanzado los niveles de maduración suficientes y necesarios para comenzar el aprendizaje de la lectoescritura, pues ha comprobado que supera todos los condicionantes que le pudieran suponer alguna traba... (Rasero eta Alcalá, 1995, 52. or).

“Irakurketa-idazketaren didaktikan garrantzi handia eman zaion kontzeptua izan da heldutasunaren hau” (Oihartzabal, 1996, 14. or). Irakaskuntza prozesu honetan ikasleek heldutasun batera iritsi behar dute, irakaslearen ahaleginak alferrik galdu ez daitezen (Ferreiro, 1999, 25.or). Gainera, irakurketa eta idazketa ikasteko prozesuaren planteamendu zorrotzak zenbait urrats eskatzen ditu, ez hain errazak, ikuspegi formaletik saihestezinak, hala nola irakurketa-idazketarako heldutasuna (Gallego, 2016).

### **3.3. Idazten ikasteko prozesua**

Umeek eskolan idazten ikasi ohi dute, “idatzizko hizkuntza menderatzea da neska-mutikoen eskolaratzearen helburu nagusienetako bat” (Guasch, 2009a, 262. or). Komunikazio-praktikak bizitza errealerako prestatzen du eta hizkuntza idatzia ohiko egoeretan erabiltzen irakasten du; baina idazketak hizkuntza edozein gai aztertzeke erabiltzen ikasteko aukera ematen du, eta, beraz, ikasten irakasteko aukera (Cassany eta besteak, 1994). Idazten ikasterako garaian, kontuan hartu beharreko alderdiak zehaztuak izan dira (Cassany eta besteak, 1994; Ibarra, 2009; Guasch, 2009b). Horiekin batera Cassany eta besteak (1994, 274. or) zehaztasun gehiagorekin adierazten dute zer den idazketa lantzeak dakarrena: edozein idazketa-ekintzak, eta, beraz, baita irakaskuntzak ere, gramatika, testu-motak, konposizio-prozesuak eta edukia ditu; nolabait ere, lau faktore horiek kontuan hartu behar direlarik.

Hizkuntzaren aditu askok idazten ikasteko garaian haur batek igarotzen dituen maila, faseak edo pausuak zehaztu nahi izan dituzte. Esan bezala, batzuk hainbat fase zehazten dituzte, beste batzuk mailetan egiten dute sailkapena, eta testu batzuetan hiru fase zehazten diren bitartean, beste batzuetan bost direla adierazten da. Hauek ezagutzea idazketa irakasteko garaian ezinbestekoa da, azken finean umeak fase batean edo bestean egonda, jarduera batzuk edo beste proposatuko zaizkielako, horren arabera baliabide desberdinak eskeiniko zaizkie eta abar.

Ikusiko diren banaketen artean, lehenengoa 1979an izan zen, Emilia Ferreirok burutu zuen eta lau maila bereizi zituen: aurre-silabikoa, silabikoa, silabiko-alfabetikoa eta alfabetikoa

(Garduño, 2019). Gainera, zehaztasun handiagoarekin sakondu zuen, maila bakoitzaren barnean umeak igarotzen dituen faseak adieraziz. Gerora, hiru fase desberdin ziren idatzizko adierazpenean: aurre-idazketa, idazketa eta berridazketa (Cassany eta besteak, 1994; Cassany, 1987; Camps, 1990). Era berean, Graciela Rodriguez-ek (2019) bere lanean Slavka Serkovic-ek 2007an egindako sailkapena plazaratzen du. Honek ere hiru etapa bereizten ditu, aurrekoaren nahiko antzekoak direnak: etapa aurre-kaligrafikoa, etapa kaligrafikoa eta etapa post-kaligrafikoak. Rodriguez-en (2019) lanean oinarrituta, honela laburtu daitezke hiru etapa hauek:

### **Etapa aurre-kaligrafikoa:**

Gutxi gorabehera, etapa hau sei urtera arte garatzen da, zirriborroaren etaparekin batera, oraindik ikasleentzat idazketa eta marrazkia bakarra direnean.

- Bi urtetik aurrera: marka handiak, tamaina desberdinetako makiltxoak, zirkulu irregularrak eta erdi itxiak egiten dituzte besteen artean. Denboraren poderioz, marra hauek letren antzekoak bilakatzen dira (1. figura).
- Lau urtetik aurrera: komunikatu nahi dutenaren arabera, haurrak ikurren lerroak egiteko gai dira. Hemen, helduen ekintza imitatu nahi izatea da ohikoena.



*Anexo 1: etapa pre caligráfica*


1. Figura. Etapa aurre-kaligrafikoa (Rodriguez, 2019, 82. or).

### **Etapa kaligrafikoa:**

Esta etapa se desarrolla a partir de los 6 años. El niño adquiere una escritura formal, es decir la que se escribe el nivel primario; parte escribiendo a través de un simple copiado de palabras que son significativas para ellos (Serkovic, 2007, apud. Rodriguez, 2019, 20. or).

Kasu honetan, besteen artean hitzak antzematen dituzte (2. figura). Irakurketa aurrera egiten badu, idazketa ere aurrera egingo du, modu paraleloan garatzen direlako. Gainera, helduekin, kopiatzeko ekintza alde batera uzten dute, eta bokal-soinuak eta soinu

kontsonantikoak ezagutzen eta lotzen hasten dira. Etapa hau bukatzean, haurrek diktaketa jarrai dezakete.




2. Figura. Etapa kaligrafikoa (Rodríguez, 2019, 82.or).

### Etapa post-kaligrafikoa:

Es en la adolescencia y en la juventud donde se consolida esta etapa; por lo tanto, podemos afirmar que la escritura se completa en esta etapa, la que puede continuar a lo largo de toda la vida, ya que implica toda la vida para su perfeccionamiento (Serkovic, 2007, apud., Rodríguez, 2019, 20. or).


2004.urtean, Montserrat Fons-ek (2004) idazketa garatzeko maila teorikoak zehaztasun handiagorekin deskribatu zituen, bost maila desberdinetan bereiziz. Jarraian sakonduko da autore honek egindako sailkapena:

Lehenengo mailan, umeez borobil eta makiltxo txiki, ikonoak ez diren formak eta abar irudikatzen dituzte helduaren idazkeraren trazuen erreprodukzio gisa. Beraz, marrazkia eta idazketa bereizten ditu, gehienetan oposiziozko egoerak bezala, hau da, marrazkia ez den guztia idazketa izanik. Laburbilduz, maila honetako idazketak alderdi formalen eta idazlanaren imitazio edo erreprodukzio bat dira (3. figura).




3. Figura. Idazketa garatzeko maila teorikoak: 1. maila (Fons, 2004, 27. or).

Bigarren mailan, idazketa bereziak sortzeko, formalki erregulatutako produkzioak idazten dira. Hau da, hitz bakoitzaren idazketaren proposamenerako forma grafiko desberdinak, bai kantitatean baita motan ere, aurkezten dituzte umeek (4. figura).




4. Figura. Idazketa garatzeko maila teorikoak: 2. maila (Fons, 2004, 28. or).

Hirugarren mailan, hitzaren silaba-segmentazioak kontrolatutako produkzio gisa idaztea dela azaltzen du Fons-ek (2004). Umeak maila honetan sartzen dira, idazkeraren eta soinu-hitzaren artean harreman estu bat dagoela konturatzen direnean (5. figura).




5. Figura. Idazketa garatzeko maila teorikoak: 3. maila (Fons, 2004, 28.or).

Laugarren mailan, hitzaren segmentazio silabiko-alfabetikoaren bidez kontrolatutako produkzioak idaztean datza. Zehatzagoak izanik, silaba bakoitzeko grafia bat baino gehiago idazten hasten dira (6. figura).



6. Figura. Idazketa garatzeko maila teorikoak: 4. maila (Fons, 2004, 29.or).

Azkenekoan, bosgarren mailan, hitzaren segmentazio alfabetiko-zehatzaren bidez kontrolatutako produkzioak aurkitzen ditugu. Hots, umeeek analisi alfabetiko zorrotza egiten dute eta soinu eta grafien arteko elkarrekikotasuna ezarri eta orokortzen dute (7. figura).




7. Figura. Idazketa garatzeko maila teorikoak: 5. maila (Fons, 2004, 29. or).

### 3.4. Idazten irakasteko metodologia desberdinak

Helburu berdinarekin, hau da, ikasleak irakurketan eta idazketan hastera eramateko, metodologia anitzak existitzen dira, urteetan zehar erabiliak izan direnak. Ikasturte desberdinetan zehar idazketaren metodoak berrituz joan dira, betikoa moldatu egin da eta "kopia soila izateari utzi, eta eraikuntza eta aurkikuntzako jardun bihurtu da idaztea, baina bi alderdietatik pixka bat eta gehiago beharrezkoa dela ahaztu da" (Ibarra, 2009, 12. or). Metodoa eta metodologia kontzeptu desberdinak dira (Oihartzabal, 2000). Metodoa, hezkuntza-eskolan helburu bat lortzeko eman beharreko teknikak, prozedurak eta urrats zehatzak dira (Oihartzabal, 2000). Metodologia, aldiz, kontuan hartu beharreko irizpide psikopedagogiko eta didaktikoen multzoa; prozedura konketuak zehaztu eta garatzean, baita hezkuntza-eskolan xede edo helburu bat lortzeko eman beharreko urratsak zehazten duena (Oihartzabal, 2000).

Metodo zein metodologiaren inguruan aritu baino lehen honekin zeri egingo zaion erreferentzia zehaztea beharrezkoa da, jarraian datorren guztia hobeto ulertzeko. Metodoaz hitz egitean, irakasleak lana egituratzeko eta antolatzeko aukeratzen duen estrategiaz ari gara, planteatutako helburua modu eraginkorragoan lortzeko (Gallego, 2016). Irakasleen lana garatzeko baliabide gisa hartzen da metodoa (Gallego, 2016).

Duela hamarkada gutxi arte, bi izan dira irakurketa-idazketaren metodologiaren esparruan nagusi izan diren orientabideak, biak zentzuz eta arrazoiz argudiatuak: ikuspegi sintetikoa, batetik, eta analitikoa, bestetik (Oihartzabal, 2000). Beste autore batzuk ere honetan sakondu izan dute eta metodo globala (analitikoa) eta, metodo sintetikoaren (silabikoa) eredu alfabetikoa, fonetikoa eta silabikoa aipatzen dira (Guzman, 2017). Jarraian Gallego (2016) eta Oihartzabalen (2000) testuetatik eta Rasero eta Alcalá-k (1995) irakasle desberdinei egindako, beraz, errealitatean oinarritutako, inkesta baten ondoren, metodo bakoitzaren laburpena (8. figura):



8. Figura. GrAL honetan aurkezten diren lau metodoak.

### **Analitikoa edo Globala:**

Hizkuntzaren irakaskuntzan, unitate zehatz eta handietatik abiatzen da, hala nola esaldietatik edo hitzetatik, unitate txikiago eta abstraktuagoetara murriztu arte, hau da, silaba eta letrak. Prozesuan osotasuna behar dute, eta, beraz, adin txikikoetan erabiltzen diren metodoak dira. Ikasleek, aurkikuntzaren bidez, letraren zentzua hasieratik aurkitzea dute helburu, ikaskuntza sortzaileagoa bultzatuz (9. figura).

### Recuadro 9.2. La metodología global o analítica

1. Se entresaca una frase de un texto más largo conocido ya por los alumnos: una narración, una poesía, etc. O se les pide que propongan una frase.
2. Se identifican las palabras que componen la frase.
3. Se selecciona un par de las palabras así diferenciadas para descomponerlas en sus sílabas, y posteriormente éstas en sus grafemas.
4. Se buscan otras palabras o nombres conocidos que contengan algunas de las sílabas y grafemas halladas en las palabras descompuestas.
5. Combinando las sílabas y los grafemas así descubiertos e identificados se intenta componer nuevos nombres o nuevas palabras.

9. Figura. Metodo analitikoaren adibidea (Oihartzabal, 2000, 254. or).

Honen barnean beste bi metodo aurkitzen dira: Analitiko hutsaren progresio metodoa (*Método de progresión analítica pura*) eta Analitikoaren progresio leunduaren metodoa (*Método de progresión analítica suavizada*).

#### Sintetikoa edo Silabikoa:

Faktore logiko eta teknikoek dute lehentasuna. Unitaterik txikienari egiten dio erreferentzia, txikienetik konplexuenera, hau da, abstraktutik konkretura. Fonemak erabiltzen dira oinarritzko elementu gisa, silabak osatzeko, silabekin hitzak, eta azken hauekin, testuak osatuko dituzten perpausak sortzeko. Normalean bokalekin hasten da, gero kontsonanteak, eta, horrela, pixkanaka dinamika desberdinen bidez idazten hasten da (10. figura).

### Recuadro 9.1. La metodología sintética

1. A, E, I, O, U — a, e, i, o, u
2. MA, ME, MI, MO, MU — ma, me, mi, mo, mu
3. MAMÁ, MIMO, AMO — mama, mimo, amo
4. MI MAMÁ ME AMA, AMO A MI MAMÁ, MI MAMÁ ME MIMA  
— mi mamá me ama, amo a mi mamá, mi mamá me mima
5. PA, PE, PI, PO, PU — pa, pe, pi, po, pu
6. PAPÁ, PEPE, PIPA, PUPA — papá, pepe, pipa, pupa
7. MI PAPÁ ME MIMA, PEPE AMA A PAPÁ, AMO A MI PAPÁ  
— mi papá me mima. Pepe ama a papá, amo a mi papá

10. Figura. Metodo sintetikoaren adibidea (Oihartzabal, 2000, 252. or).

Aztertutako hasierako elementuaren arabera, honela sailka ditzakegu:

1. *Alfabetikoa* (edo grafematikoa). Hizkien balio fonetiko isolatuaren bidez irakurtzen irakasten du, orden jakin baten arabera, ondoren konbinazioak egiteko.
2. *Fonetikoa*. Letra bakoitzaren soinuaren bidez egiten da ikaskuntza, honen irudikapen bat bilatuz.



3. *Silabikoa*. Aurrekoen antzeko da, baina kasu honetan, hizkia ikasi ordez, silabak ezagutu eta ikasten dira.

Antzekoak edo haien arteko nahasketa diren beste metodo batzuk:

- Metodo onomatopeikoa: soinuak imitatzen dituenak. Adibidez, 'Micho' izenarekin ezaguna den Bruño editorialekoa (1981).
- Keinu metodoa: maila desberdinetako mugimenduak erabiltzen dituenak.
- Metodo multisensoriala: ikus-eremua entzumenarekin, keinuekin edota ukimenarekin konbinatzen dituenak.
- Metodo foniko hutsa.
- Onomatopeiko-foniko-silabikoa: metodo fonetiko eta silabikoen arteko nahasketa.

### **Mistoa edo Eklektikoa:**

Ikasleak testua osotasunean ulertu behar du, baina aldi berean, fonemen eta grafemen arteko konbinazio posibleak aurkitzeko gai izan behar da. Ikuspegi mistoa, sintetikoa eta analitikoaren arteko nahasketa da, horregatik, fase hirukoitza du bere prozesuan: globalizatua, analitikoa eta sintetikoa, eta, hala, aukera-sorta zabaltzen du.

### **Konstruktibista:**

Idazketaren irakaskuntzara bideratutako metodo hau konstruktibismoan oinarrituta dago:

...en el aprendizaje se implica el desarrollo de habilidades cognitivas que favorecerán la resolución de problemas, atribuyendo un significado a aquello que es objeto de estudio. A partir de sus conocimientos irá incorporando lo aprendido a sus esquemas conceptuales (Gallego, 2016, 330. or).

Konstruktibismoan bezala, metodo honetan abiapuntu gisa hartzen dira ikasleek irakaskuntza- nahiz ikaskuntza-prozesuarekin zerikusia izan dezaketen alde aurreko ezagutzak.

Gizartea aurrera egiten duen heinean, hezkuntzak ere aurrera egiten du eta ezagunak diren metodoen nahasketak ere sortuz joan dira. Honen adibide da: fotosilabikoa (adibidez 'Palau'-rena), metodo analitiko eta mistoaren arteko nahasketa dena. Metodo honek silaba bakoitzari harekin hasten den erreferentzia irudia lotzen dio (Ridao eta Rodriguez, 2019), hau da, irakurketa-kodea ikastea bultzatzen duten piktogramak ditu (García Risco, 2019). Alabaina, metodo fotosilabikoak kritika jaso du formaren alde esanahitik urruntzen delako (Ridao eta Rodriguez, 2019).

Hala eta guztiz ere, metodologia hauek eskura izanda ere, “irakurketa-idazketa metodoen ikuspuntua zabaltzeko premia” dago (Ibarra, 2009, 10.or). Hau lortzeko, lehenik, hizkuntza idatzitik hasi behar da, protagonismoa haurrari eta elkarrekintzari emanaz (gaizki aritzeko beldurrik izan gabe) eta idazketa lantzeko denbora gehiago hartuz, hau da, malguago jokatzuz. Gainera, irakasleak idazketa sistemaren arloak ezagutzea inportantea dela adierazten du, ikasleak prozesu hau mailakatzera eta azkenean, automatizatzerara iritsi arte (Ibarra, 2009).

Ez dago metodo hoberik edo okerragorik; ikasle bakoitzaren beharretara egokitu behar da beti. Haurrak motibatuzko, deskubritzeko eta gehiago jakin nahi izateko gogoak pizten dituen metodoa erabili behar da. Idazten (eta irakurtzen) jakitearen beharra eta haren erabilgarritasun handia ikusi eta sentitzera eraman behar dira umeak. Hala, metodo bat aukeratzeko irakasleak argi izan behar du ez dagoela ikasleentzat onena den metodo bat bakarra, izan ere, ikasle bakoitzak bere modura ikasten duelako eta haien behar eta interesetatik abiatu behar delako ikaskuntza (Garduño, 2019).

Horregatik ere, garrantzitsua da ikasleek prozesu honetan igarotzen dituzten maila desberdinak ezagutzea eta lan egiterako garaian kontuan izatea.

En la medida que el docente como profesional de la educación conoce el desarrollo del alumnado en cada etapa de adquisición del proceso lector y escritor, estará más cualificado para percibir y dinamizar en el aula los momentos de escritura y lectura que presente su alumnado (Gallego, 2016, 340. or).

Hau hezkuntzako profesionala den aldetik, ikasleak gidatu eta lagunduko ditu irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu horretan, eta ikasleak irakurle eta idazle gaituak izateko aukerak sortuko ditu (Gallego, 2016). Ikasleek ondo pasatu behar dute idazten, idazteko gogo handiagoa sentiaraziko dielako, eta pixkanaka pixkanaka idazketa estimatzen hasiko direlako (Cassany eta bestek, 1994).

Lehen Hezkuntzako etapan idazketa eta irakurketa dira nagusi eta lehenengo zikloan gutxienez, jarduera gehienak daude honetara bideratuta. Hau egungo hezkuntza curriculum-etan ikusten da islatuta, zehaztutako konpetentzietan idazketa agertzeak honi garrantzia ematen diola erakusten duelako. Estatu mailan ezarritako legearen kasuan, Lehen Hezkuntzako helburu nagusiaren inguruan honakoa dio: ikasleei, besteen artean, ahozko adierazpenaren, ulermenaren, irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzak erraztea (126/2014 dekretua) ditu helburu. Konpetentziak aipatzean, Hizkuntza Komunikaziorako gaitasuna eta gaitasun Eleaniztuna aurkitzen dira (126/2014 dekretua).

Gehiago zehaztuz eta kontuan izanik hurrengo ataletan Euskadiko eta Nafarroako Foru Komunitatean aurkitzen diren bi eskola aztertu direla, eremu bakoitzeko curriculum-ek diotena aipatuko da. Euskadiko Heziberri 2020 curriculum-ari dagokionez, Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia dago, idazketa eta irakurketaren gaitasunei zuzenduta: “egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko eta idatzizko hizkuntza egoki eta ganoraz erabiltzea, euskaraz eta gaztelaniaz, bizitzaren eremu guztietan” (236/2015 dekretua, 71. or). Era berean, Nafarroako curriculum-ean ere idazketa eta irakurketari zuzendutako konpetentzia aurkitzen da, Hizkuntza Komunikaziorako gaitasuna (60/2014 dekretua) bezala izendatua. Oso garrantzitsua da ikasleek idazten eta irakurtzen ikas dezaten haien egunerokotasunean etengabe erabiliko duten zerbait delako eta gizarte honetan bizitzeko jakintza eta konpetentzia hauek garatzea oso garrantzitsua delako. Hasieran esanda, irakasleek ardura handia dute honetan.

#### **4. HELBURUAK**

Autoreek idazmenari buruz esan eta ikertu dutena kontuan izanik eta lege desberdinek, estatu mailan zein autonomia-erkidegoetan (126/2014 dekretua, 60/2014 dekretua eta 236/2015 dekretua), eskolan zer landu behar den diotenean oinarrituz, honakoak dira GrAL honen helburuak:

1. Idazketa zer den ezagutzea, honen ikaskuntzaren faseak eta honi buruzko metodoak ezagutzea.
2. Idazketaren garrantzia azpimarratzea eskola barruan zein eskolaz kanpo.
3. Errekabarri eskolan eta Tafallako Ikastolan Lehen Hezkuntzako 1. zikloan idazketa lantzen hasteko moduak ezagutzea eta bi eskoletan erabiltzen diren metodologiak konparatzea.

Hori horrela, jarraian azkeneko helburua lortzeko bi eskoletako lau irakasle elkarrizketatu dira hauek praktikan jartzen dituzten metodologiak ezagutu eta ondoren konparatzeko.

#### **5. METODOLOGIA**

Kasu-azterketa bat burutu da bi ikastetxeetako lan egiteko eran zentratu delako ikerketa. Elkarrizketak egin dira informazioa jasotzeko eta bertatik, datu kualitatibo eta kuantitatiboak lortu dira, beraz, metodologia mistoa erabili da Gradu Amaierako Lan honetan. Egindako galderen bidez, alde batetik, eskoletan erabiltzen duten idazketa irakasteko metodologiak ezagutu dira eta, bestetik, jarduera konkretuen erabilerak zein kanpo faktore batzuen eraginak zenbatu dira.

### **5.1. Eskolen aukeraketaren justifikazioa**

Lan honetan bi eskolek erabilitako metodologiak ezagutu nahi izan dira, ondoren, aztertu eta haien arteko konparaketa egiteko asmoarekin. Errekabarri eskola publikoko eta Garcés de los Fayos Ikastolako lau irakasle elkarrizketatu dira, eskola bakoitzeko bi. Ezaugarriei dagokienez, bi eskola hauen artean desberdintasunak nahiko nabariak dira eta hori izan da hauek aukeratzeko arrazoi nagusienetariko bat.

D eredia eskaintzen duten eskolak aztertu ziren. Alde batetik, Errekabarri Gasteizko hirian dagoen eskola publikoa da. Auzoko ikasleen arteko aniztasuna nabaria da eta ikasle kopurua altua da, maila bakoitzeko hiru lerro daudelarik. Eskola hau nabarmentzekoa da proiektuen bidezko ikaskuntza eramaten duelako aurrera ikasleek proposatutako ideietatik abiatuta.

Garcés de Los Fayos Ikastola, aldiz, Tafallako hiri txikian dago kokatuta eta guraso kooperatiba bat izateaz gain, Ikastolen Elkarteko partaidea da, beraz, itunpekoa. Bertako hiriko zein ondoko herrietako ikasleak batzen dira bertan, ikasle kopurua aurreko eskolako baina askoz txikiagoa da, gehienetan maila bakoitzeko lerro bakarra egonez. Eskolaren ezaugarriei dagokienez, irakasle eta guraso harremana gertukoa da, irakaskuntza ere hurbilekoa izatea eragiten duena.

### **5.2. Datuak biltzeko tresna eta prozedura**

Datuak elkarrizketen bidez jaso ziren, galdetegia pasatu zitzaaien irakasleei (1. eranskina). 10 galdera egin ziren eta hauek eskatutako informazioaren arabera, lau arlo desberdinetan sailkatu dira, jarraian azalduko diren lau kategoria sortuz. Galdera horietatik zortzi izan dira erabilitakoak (1. taula). Elkarrizketak aurrez aurre egin eta grabatuak izan dira ostean transkribatzeko. Galdetegia osatzen duten galdera guztiak irekiak izan dira, honela, irakasleek askatasun gehiago dutelako erantzunak emateko eta honek ere, bestelako informazioa jasotzeko aukera ematen duelako.

1. taula. Emaitzak aztertzeko erabilitako galderak.

<b>GALDERAK</b>	
<b>1</b>	(a)Zeintzuk dira idazketa lantzeko egiten diren jarduera nagusiak? (b)Ba al dago orden finkoren bat jarduera horiek planteatzeko / planifikatzeko, hilean / hiruhilabetean? (d)Zergatik egiten da horrela?
<b>2</b>	Nola sustatzen duzue idazketa, hau da, noiz edo zein denbora/momentu erabiltzen da/dira hau egiteko?
<b>3</b>	Idazketarekin harremana duten, edo idazketan oinarritzen diren jarduerak klasean burutzean ikasleen gainean egon ohi zarete hauek egiten dutena ikuskatzeko ala bakarrik uzten dituzue? Bakarrik utziz gero, ze <i>feedback</i> mota ematen diezue ikasleei? Adibidez, egindakoa jaso eta komentatu? Ikasle bakoitzaren koaderno/portfolio propio batean gorde? Koebaluazioa (binaka jarri eta elkarri zuzendu)? Errubrika antzeko zerbaiten bidez?
<b>4</b>	Zein material erabiltzen duzue idazketa indartzeko edota umei laguntzeko?
<b>5</b>	Gela barruan, idazketarekin erlazionatuta dagoen jarduera bat egiterako garaian: (a)Bakarrik uzten dituzue nahi dutena idazten ala hasi bainio lehen gogoratzen diezue ze urrats eman behar duten (hau da, andamiajea eskaintzea)? Hala bada, zergatik? (b)Diktaketak egiten dituzue? Baiezkoa bada, zergatik edo zertarako? (d)Letren kopiaketak egiten dituzue? Zergatik?
<b>6</b>	Idazketa lantzean, borragoma erabiltzeko aukera dute ikasleek? Zeintzuk dira arrazoiak? Eta zein kurtsotatik aurrera erabil dezakete borragoma? Zergatik desberdintasun hori?
<b>7</b>	Badaude idazketan hasteko prozesuan eragina duten faktoreak? (a)Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragina dauka? (b)Familiaren ikasketa-mailak, hau ezagutzeko aukera izatekotan, eraginik badu? (d)Ikasleen artean anai-arreba nagusiak dituzten eta ez dituztenen artean desberdintasunik ikusten al da idazten hasteko garaian? Laguntzarik jasotzen al dute ikasleek haien anai-arreba nagusiengandik? (e)Lehen Hezkuntzako maila bereko ikasleen artean idazten hasteko garaian desberdintasunik ikusten al da jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean? (f)Desberdintasunak igartzen dituzu, generoaren arabera, hau da, neskatoen eta mutikoen artean idaztean?
<b>8</b>	Zer nolako irizpide eta tresna jarraitzen/erabiltzen dituzue ebaluatzeko eta haien idazten ikasteko prozesua aurrera egiten ari duela jakiteko?

Galdetegia osatzen duten galderak lau kategoria desberdinetan banatu egin dira analisia erraztu eta erantzunik ez galtzeko. Lehenengo hiru atalek: Jarduerak eta horien helburuak, idazketaren sustapena eta umeen inguruko faktoreak ikasleekin harreman zuzena dute. Azkeneko atala, aldiz, irakaslearen papera eta ebaluazioa, irakaslearen lanera bideratuta dago. Hasteko, lehenengo atala proposatzen diren jarduerak eta ikasleek ikasgeletan egiten dutena ezagutzeko helburuarekin zehaztu da (2. taula), bertan ikas egoera bat egitean

kontuan hartzen diren alderdiak sartu dira, hala nola, jarduerak eta haien azalpena (1a galdera), programazioa eta jardueren orden edo sekuentziazioa (1b eta 1d galderak) eta azkenik, hauek aurrera eramateko erabiltzen den material desberdina (4. eta 6. galderak).

2. taula. Lehenengo atala: jarduerak eta horien helburuak.

ATALA	IZENBURUA	GALDERAK
1	Jarduerak eta horien helburuak	a) <u>Diseinu didaktikoa</u> : Zeintzuk dira idazketa lantzeko egiten diren jarduera nagusiak?
		b) <u>Programazioa</u> : Ba al dago orden finkoren bat jarduera horiek planteatzeko / planifikatzeko, hilean / hiruhilabetean? Zergatik egiten da horrela?
		d) <u>Materiala</u> : Zein material erabiltzen duzue idazketa indartzeko edota umeei laguntzeko?  (Errekabarri eskolari soilik) Idazketari buruz, eskola honetan ez zaie borragoma erabiltzeko aukerarik ematen. (a) Zeintzuk dira arrazoiak? (b) Eta zein kurtsoatik aurrera erabil dezakete borragoma? Zergatik desberdintasun hori?

Marko teorikoan aipatu da oso garrantzitsua dela idazketaren sustapena eta ikasleen behar eta nahiak kontuan hartzea, idazketa den arloa gustura landu dezaten (3. taula). Beraz, bigarren puntua honetara zuzenduta dago, nola bultzatu ahal den idazketa eskolan (2. galdera).

3. taula. Bigarren atala: idazketaren sustapena.

ATALA	IZENBURUA	GALDERA
2	Idazketaren sustapena	Nola sustatzen duzue idazketa, hau da, noiz edo zein denbora/momentu erabiltzen da/dira hau egiteko?

Zerbait aurrera eramaterako garaian, kasu honetan idazketaren ikaskuntza, honetan eragina duten alderdi edo faktore guztiak ez daude beti ikaslearen zein irakaslearen menpe. Horregatik garrantzitsua ere bada ezagutzea ikasleen eskuetan ez dauden beste faktore batzuk haiengan eta haien ikaskuntzan eragina al duten. Familia, jaiotza data eta generoa

(7. galdera), bakoitzaren erabakietan ez dauden beste eragile batzuk aztertu dira hirugarren atalean (4. taula).

4. taula. Hirugarren atala: umeen inguruko faktoreak.

ATALA	IZENBURUA	GALDERAK
3	Umeen inguruko faktoreak	Badaude idazketan hasteko prozesuan eragina duten faktoreak?
		<p>3.1 <u>Familiak</u>:</p> <p><b>a)</b> Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragina dauka?</p> <p><b>b)</b> Familiaren ikasketa-mailak, hau ezagutzeko aukera izatekotan, eraginik badu?</p> <p><b>d)</b> Ikasleen artean anai-arreba nagusiak dituzten eta ez dituztenen artean desberdintasunik ikusten al da idazten hasteko garaian? Laguntzarik jasotzen al dute ikasleek haien anai-arreba nagusiengandik?</p>
		<p>3.2 <u>Jaiotza</u>:</p> <p><b>e)</b> Lehen Hezkuntzako maila bereko ikasleen artean idazten hasteko garaian desberdintasunik ikusten al da jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean?</p>
		<p>3.3 <u>Generoa</u>:</p> <p><b>f)</b> Desberdintasunak igartzen dituzu, generoaren arabera, hau da, neskatoen eta mutikoen artean idaztean?</p>

Amaitzeko, irakaslearen paperaren garrantzia eta honen lanaren parte den ebaluazioarekin harremana duen atala sortu da (5. taula). Bertan jarduerak proposatzean irakasleek egiten dutenaren inguruan eta momentuko zuzenketen inguruan galdetu da (3. galdera). Horrez gain, irakasleek jarduerekin hasi baino lehen irizpide konkretu batzuk partekatzen al dituzten jakin nahi izan da eta era berean, tradizionaltzat jo daitezkeen jarduerak, hala nola, diktaketak, gaur egun praktikan jartzen al dituzten ezagutzeko xedearekin galdetu zaie (5. galdera). Laugarren atal honekin amaitzeko, ikasleak ebaluatzeko zer nolako irizpide jarraitzen diren (8. galdera) ezagutu nahi izan da.

5. taula. Laugarren atala: irakaslearen papera eta ebaluazioa.

ATALA	IZENBURUA	GALDERAK
4	Irakaslearen papera eta ebaluazioa	Idazketarekin harremana duten, edo idazketan oinarritzen diren jarduerak klasean burutzean ikasleen gainean egon ohi zarete hauek egiten dutena ikuskatzeko ala bakarrik uzten dituzue? Bakarrik utziz gero, ze feedback mota ematen diezue ikasleei? Adibidez, egindakoa jaso eta komentatu? Ikasle bakoitzaren koaderno/portfolio propio batean gorde? Koebaluazioa (binaka jarri eta elkarri zuzendu)? Errubrika antzeko zerbaiten bidez?
		Gela barruan, idazketarekin erlazionatuta dagoen jarduera bat egiterako garaian: (a) Bakarrik uzten dituzue nahi dutena idazten ala hasi bainio lehen gogoratzen diezue ze urrats eman behar duten (hau da, andamiajea eskaintzea)? Hala bada, zergatik? (b) Diktaketak egiten dituzue? Baiezkoa bada, zergatik edo zertarako? (d) Letren kopiaketak egiten dituzue? Zergatik?
		Zer nolako irizpide eta tresna jarraitzen/erabiltzen dituzue ebaluatzeke eta haien idazten ikasteko prozesua aurrera egiten ari duela jakiteko?

Atal bakoitzean sakondu ondoren, galdera hauei erantzun dieten irakasleen jardunera gehiago hurbilduko da, hauen ezaugarriak eta testuinguruak kontuan hartu behar direlako gerora datozen emaitzak ulertzeko.

### 5.3. Parte-hartzaileak

Errekabarriko bi irakasle elkarrizketatu dira, hemendik aurrera Irakasle 1 eta Irakasle 2 izendatuko direnak. Irakasle 1ak (2. eranskina) 6-8 urte daramatza irakasle gisa lanean horietako azkeneko hirurak Errekabarri eskolan izan direlarik. Gehienetan lehenengo zikloan aritu da lanean baina batzuetan hirugarren zikloan ere jardun izan da. Normalean tutorea izan da, baina aholkulari bezala ere egonda dago. Irakasle 2ak (3. eranskina), aldiz, 7 urte daramatza irakasle bezala lanean, azkeneko hirurak ere Errekabarri eskolan Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko irakasle gisa.

Bestalde, Tafallako Ikastolako beste bi irakasle ere elkarrizketatu dira, Irakasle 3 eta Irakasle 4 izendatu direnak. Aipatzekoa da irakasle hauek elkarrizketa batera egin nahiago izan zutela eta, ondorioz, erantzun bateratuak eman dituzte (4. eranskina). Irakasle 3a 30 urtez aritu da irakasle gisa horietako 18-20 Haur Hezkuntzan, 4 zuzendari eta gainontzekoak




Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan, beti Ikastola berean. Irakasle 4ren kasuan, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan aritu da lanean 17 urtez, beti eskola berean. Jarraian elkarrizketetatik jasotako informazioa atalka aztertuko da, arestian ezarritako lau kategorien arabera. Bi eskoletako lau irakasleak kontuan hartuz eta galdera hauen erantzunetatik baliatuz emaitza batzuk aurkeztuko dira.

## **6. EMAITZAK**

Elkarrizketak egin ondoren bildutako emaitzak eta datuak aurreko atalean zehaztutako lau kategorietan (jarduerak eta horien helburuak, idazketaren sustapena, umeen inguruko kanpo faktoreak eta irakaslearen papera eta ebaluazioa) aztertu eta konparatu dira. Hori horrela, eskola bakoitzak idazketa sustatzeko aurrera eramaten dituen jarduerak eta horien helburuak aurkezten hasiko da.

### **6.1. Diseinu didaktikoa, programazioa eta materiala**

Diseinu didaktikoaren arlo desberdinen kasuan, bi eskolen lan egiteko eta antolatze moduen artean kointzidentziak aurkitzen dira (1. grafikoa). Gasteizko eskolak proposatzen dituen jardueren artean zerrendak dira lehena, adibidez, asteko egunekin, hilabeteekin, klasekideen izenekin... Hauek, ikasleek idazketa lantzean hiru gauza lortu behar dituztela zehazten dute: hizkien izena, hizkien grafia eta hizkien soinua ikastea, honi 'taburetea' deitzen diotena. Aitzitik, Tafallako eskolako irakasleek helburu batekin idaztea, hau da, zerbaitetarako idaztea da proposatutako jarduera guztien xede nagusia. Ikasleei zerbait komunikatzeko idazten dutela esaten diete, orduan, edozein egoeraz probesten dira idazketa landu eta jarduerak proposatzeko. Tafallako Ikastolan ere, Gasteizko eskolan bezala, zerrendak egitea da jarduera nagusia (erosketara joateko zerrenda, lagunen izenak, familien izenak, gurasoei esateko ohar txikiak, gonbidapenak). Horrekin batera, letra, hitz eta esaldiekin asko jolasten direla diote, hala nola, *memory* eta *ahorkatuaren* jolasak. Kontzientzia fonologikoa asko lantzen dutela nabarmentzen dute.



1. grafikoa. Idazketa lantzeko proposatzen diren jarduerak nagusiak.

Programazio aldetik, Errekabarri eskolan ez dituzte jarduerak orden finko batekin proposatzen. Urte osoan zehar lantzen dituzte idazketa fintzeko jarduerak, modu honetan ikasleen erritmoak errespetatzeko. Era berean, Tafallako Ikastolan ere planifikatzen ez duten arloa da idazketa baina hau egitea ongi legokeela komentatzen dute elkarriketatutako bi irakasleek, betiere, taldearen araberakoa izanik ikasleen erritmoak errespetatzeko xedearekin eta bakoitzak bere taldeak eskatzen duen bidea hartu behar duelako. Beraz, egun, inork (%100) ez du idazketa programatzen eta garrantzi handia ematen diote denek ikasleen erritmoak errespetatzeari.

Idazketa lantzeko materialari dagokionez, desberdintasunak nahiko nabariak dira. Eskola publikoan material anitza dute ikasleek (5. eranskina) eta itunpeko eskolan, aldiz, orain arte haien sortutako materialarekin, besteak beste, jolas eta fitxekin aritu badira ere, azkeneko ikasturteetan Ikastolen Elkarteak sortu berri duen Kimu proiektuan oinarritzen dira. Kimu proiektua obra literario batean oinarritzen da eta honekin jolastu egiten dira hainbat jarduerak egiteko aukera eskaintzen baititu (6. eranskina). Hala nola, ipuinari hasiera zein amaiera aldatu, pertsonaiak deskribatu, esaldiak moldatu, testuen egitura desberdinak ezagutu.

#### 6.4. Idazketaren sustapena


Hurrengo kategorian, idazketaren sustapenari dagokiona, ez dira kointzidentziak aurkitu. Errekabarri eskolan bi egoerataz baliatzen dira honekin hasteko. Alde batetik, egutegiaren proiektuaz, honek idazketa minimo bat egitera ahalbidetzen edo derrigortzen dituelako,

adibidez, hilabeteak, haur bakoitzaren urtebetetze eguna, asteko egunak etab. Bestetik, eta ikasle taldeen ratioei kritika eginez, nagusiki gelan laguntza bat sartzerako garaian hala bikoizketak egitean aprobetxatzen dute idazketa lantzeko, “hasieran 25 umeri heltzea oso zaila da” (Irakasle 2).

Garcés de los Fayos Ikastolan, berriz, idazketa etengabe lantzen dute, eguneko edozein momentutan eta edozer egiteko. Matematiketan idazten dute, ingurunen idazten dute, euskaran idazten dute, ingelesean idazten dute, musikan idazten dute...

### 6.5. Umearen inguruko kanpo faktoreak

Idazketaren ikasketan eragina duten faktoreen inguruan, ea idazketan hasteko prozesuan bai ikasleen ezaugarri biologikoek zein familiari dagozkion ezaugarri desberdinek (etxean familiaren laguntza jasotzea, familiaren ikasketa maila, anai-arreba helduak izatea, ikaslearen jaiotza data eta generoa) eragina al zuten galdetu zitzairen. 2. grafikoa jasota daude erantzunak:



2. grafikoa. Idazketaren ikasketan eragina duten faktoreak.

Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragin positiborik al zuen galdetzean, ez zen ziurtasunez ezer erantzun. Errekabarri eskolako irakasleek etxean familiaren laguntza jasotzea nabaritzen dela adierazi zuten eta are gehiago familia erdalduna, elebiduna edo euskalduna bada ikasleek duten hiztegiari dagokionez. Tafallako Ikastolakoek, aldiz, ez dute oso argi, baina irakurketaren kasuan etxean familiaren laguntza jasotzen duten ikasleen eragina agerikoa dela diote. Berriz, familien ikasketa mailak eragina al duen galdetzean guztiak ados daude honek eraginik ez duela eta eragina izan behar ez lukeela. Era berean,

Irakasle 1ek adierazten du etxeko laguntza gurasoen pertsonarekiko zein izaerarekin zerikusi gehiago duela.

Anai-arreba helduak dituztenen eta ez dituztenen artean idazten ikasteko garaian desberdintasunak nabariak diren galdetzean irakasleen arteko erantzunek ez dute bat egiten. Gasteizko eskola publikoko irakasleen ustez, erlatiboa da. Gainera, haien artean duten harremanak desberdinak badira ere, haien erreferenteak direla diote, eta ongi ala ez hain ongi eginda ere helduak kopiatzen saiatzen dira eta helduak idazten ikustek familiako txikiak motibatzen dituela adierazten dute. Tafallako eskolako irakasleen iritziz, hau ez da hain adierazgarria izaten haiek nabaritzen dutela esateko moduan.

Jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean desberdintasunak nabaritzen al dituzten galdetzean, denak ados daude hain txikiak izanik lehenengo mailan nagusiki desberdintasuna nabaria dela. Hala eta guztiz ere, zalantzak dituzte honen inguruan. Irakasle 1 eta Irakasle 3k ikasleen heldutasuna aipatzen dute. Lehenengoaren aburuz, jaiotza datak bere baitan ez duela eraginik adierazten du, badaudelako urtarrilean jaiotako umeak oraindik sinbolikoan daudenak eta azaroakoak oso helduak direnak. Besteak ere, heldutasun kontua dela dio: “urte hasierakoak izatea ez du ziurtatzen heldutasun maila duela, eta (...) orduan urte bukaerakoa izateak ez du azaltzen heldutasun falta hori” (Irakasle 3).

Generoaren kasuan, denek oso argi daukate honek ez duela inolako eraginik, hau da, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan ikasleen generoak ez du inolako ondoriorik idazten ikasterako garaian.

## **6.6. Irakaslearen papera eta ebaluazioa**

Bai Errekabarriko eskola publikoan baita Garcés de Los Fayos Ikastolan ere, noizbait libre uzten dituzte ikasleak idazketan, nahi dutena idatzi dezaten inor gainean izan gabe eta haiek uste duten modura. Denak ados daude ikasleen idazteko modua errespetatu behar dela eta *feedback* nagusia, ikasleekin egindakoa komentatzea izan ohi da. Hala ere, desberdintasun batzuk topatu ditzakegu.


Errekabarrin hasieran, ikasleak aske uzten dituzte baina batzuetan haien gainean ere egoten dira, ikasle batzuei arreta gehiago eskainiz. Haientzat “idazketa guztiak daude ondo” (Irakasle 2) eta behar-beharrezkoa da ikasleak haien akatsak ikustea. Horregatik, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara arte ez diete borragoma erabiltzeko aukerarik eskeintzen.

Hainbat dira Errekabarri eskolak dituen arrazoiak ikasleei Lehen Hezkuntzako 3. mailara arte borragoma erabiltzen ez uzteko. Lehenik, beraiek ikusteko akatsa eta konturatzeko zer den gaizki egiten dutena. Hau ez badute ikusten, ez dute gaizki egindakoaren sentsaziorik eta ez dute okerretik ikasteko aukerarik izaten. Bigarrenik, izugarritzko estresa suposatzen dielako eta horrekin obsesionatzen direlako. Ondorioz, oso perfektionistak bilkatzen dira. Beraz, 3. mailan haien buruekiko kontrol gehiago dutenean, borragomaren erabilerarekin hasten dira.

Tafallako eskolan batzuetan ikasleak libre uzten dituzte idazketa lantzeko eta honen gaineko beldurra kentzeko. Alabaina, helburuaren arabera, hau da, lantzen dutenaren arabera (maiuskulak, minuskulak, letren birak...) zuzenketa moldatu eta zehatzagoa bilakatzen da. Guztiearen gainean, ikasleei ongi egin dutena adieraztea beti egin behar den zerbait dela azpimarratzen dute.

Egindako lanen ebaluazioari dagokionez, eskola publikoan koadernoari argazkiak atera eta eboluzioa aztertzen duten bitartean, itunpeko eskolan irakasleak ikasleekin batera, banaka, egiten dute zuzenketa. Halaber, Gasteizko zein Tafallako eskoletan idazketarekin erlazionatutako jarduera batekin hasterako garaian, normalean ezagunak dituzten arau edo irizpide batzuk birgogoratzen dituzte irakasleek, hala nola, izenburua jarri behar dutela, non jarri data... Testuari dagokion ereduaren inguruan nagusiki.

Laugarren atalarekin jarraituz, diktaketak egiten al dituzten galdetzean, bi eskoletan baiezko erantzunak jaso dira (3. grafikoa). Errekabarri eskolan bai hitz/testuen baita zenbakien diktaketak ere egiten dituzte. Tafallako eskolan, aldiz, soilik hitz diktaketa. Honen helburuak hainbat dira: zein ikasle doan aurrera eta "zein dagoen estankatuta" (Irakasle 1) ikustea, zein letratan duten hutsunea edo akatsa, jaten dituzten letrak edota ispiluarena egiten al duten.



3. grafikoa. Diktaketak eta letren kopiaketan egiten al dira eskoletan?

Gaur egun, inork ez ditu letren kopiaketak egiten, edo gutxienez, saiatzen dira. Errekabarrin hasieran zerbait egiten dute baina ume bakoitzak bere idazteko forma edo modua duela badakite eta horretan pixka bat esku zabalak izaten saiatzen dira. Tafallako Ikastolan duela urte batzuk konturatu ziren kaligrafia lantzea eta koadernoak betetzea ez zela erabilgarria. Horregatik, egun ikasleei bidaltzen dieten azkeneko mezua honakoa da: “idazten duzuna beste batek (edo zuk zeuk) irakurtzeko da. (...) bestela, zertarako molestatu?” (Irakasle 3).

Ebaluatzeko garaian, bi eskoletan irizpide eta tresna berdinak erabiltzen dituzte. Gehien bat behaketa egiten dute, eguneroko lanetako behaketa, oharrak hartu eta noizbehinka egindako lanak bildu. Ikasleek duten eboluzioa ikusteko. Irakaslea 4k aipatzen du haientzat eta gurasoei partekatzen dioten zerbait dela, berdin duela haurra zein mailatan dagoen, garrantzitsuena aurrera egiten duela dela.

Emaitza guztiak aztertuta eta ondorioak aterata, hurrengo taulan erabilitako galdera guztien erantzunak konparatu egin dira. Galdera irekiak egin direlarik, informazio asko jaso da horietatik eta hurrengo taulan (6. taula) informazio hori oso era labur eta sinplean antolatu egin da.

6. taula. Errekabari eta Garcés de los Fayos eskolen arteko konparaketa irakasleen erantzunen arabera.

GALDERA	ERREKABARRI ESKOLA	GARCÉS DE LOS FAYOS IKASTOLA
1	a Zerrendak eta material anitzaren erabilera.	a Hitza eta ezagunetik. Zerrendak, oharrak eta jolasak.
	b Ez.	b Ez, baina ongi legoke.
	d Erritmoak eta garapena errespetatzeko.	d Taldearen arabera izan behar du.
2	Izenak idazten. Egutegiaren proiektua.	Etengabe, edozer egiteko.
3	Batzuetan gainean daude eta besteetan ez. Umearen idazteko modua errespetatzen da. ( <i>feedback</i> -a) Koadernoari argazkiak, ikasleekin batera egindakoa begiratu eta taldean partekatu eta zuzendu.	( <i>feedback</i> -a) Nagusiki banaka egindakoa ikasleekin aztertu eta batzuetan talde handian. Beti esan zer egin duten ongi.
4	Areneroa, arbelak, lijazko letrak, herradura, soinuen kutxa.	Kimu proiektuaren materiala.
5	a Urrats/irizpide batzuk esan eta gogorarazten zaizkie, egiturari zuzenduak.	a Batzuetan libre uzten dituzte, baina gehienetan urratsak ematen dira. Idazketa planifikatzen ikasteko nagusiki.
	b Hizkuntza eta matematika didktaketak egiten dira, besteen artean ikaslea non dagoen jakiteko.	b Bai, ikasleak idazketaren zein fasetan dauden jakiteko.
	d Lehenengo mailaren hasieran pixka bat, baina normalean ez.	d Ez.
6	Ez. Oso perfektionistak bilakatzen direlako eta obsesioa eta estresa suposatzen dielako. Egoera puntualetan soilik. Haien akatsak ikusi behar dituztelako bertatik ere ikasteko. 3. mailatik aurrera erabiltzen hasten dira autokontrol gehiago dutelako.	Bai. Etengabe erabiltzen dute.
7	a Bai.	a Ez dakite.
	b Ez.	b Ez.
	d Ez dakite, erlatiboa da.	d Ez da nabaria baiezkoa emateko.
	e Batzuetan bai, baina heldutasunaren arabera.	e Batzuetan bai, baina heldutasun kontua da.
	f Ez.	f Ez.
8	Eguneroko behaketa.	Etengabeko behaketa.

Irakasleen erantzunak bateratuta, antzeman daiteke hainbat direla bi ikastegi arteko diferentziak. Hala nola, batzuk egutegiko proiektuaz eta klase barnean laguntza sartzean idazketa lantzeko baliatzen dira eta besteak aldiz, edozein momentu eta egoera apropos ikusten dute hau egiteko. Gainera, eskola publikoan idazterako garaian material anitza (arbela, soinuen kutxa, herradura...) eskaintzen duten bitartean, Ikastolan Kimu proiektu

berritzailean oinarritzen dira. Errekabarri eta Garcés de los Fayos-en arteko beste desberdintasunen adibide da eskola batentzako ikasleek etxean gurasoen laguntza jasotzea onuragarria dela ziurtatzen dutela, eta besteek ez dute horren eragina hain argi ikusten.

## **7. ONDORIOAK**

Gradu Amaierako Lan honen helburuak gogora ekarriz, guztiak bete egin dira. Lehenengo eta bigarren helburuak marko teorikoaren bidez, hainbat ikertzailek eta adituk adierazi dutelako, idazketa zer den eta bere fase eta metodologiak ezagutzeaz gain, idazketa eskolara soilik ez mugatzea, baizik eta eskolaz kanpo lantzea ere garrantzitsua dela ikusi egin da. Aldiz, emaitzen eta ondorioen atalen bitartez, hirugarren helburua betetzeaz gain (bi eskoletako metodologiaren azterketa eta konparaketa), bigarren helburua, hau da, idazketaren inportantzia eskola barnean zein kanpoan berriz ere berretsi egin da. Hori horrela, egindako elkarrizketetan erabilitako galderen erantzunak oinarri hartuta eta aurreko atalean lortutako informazioarekin, honakoak dira ateratako ondorioak:

### **7.1. Diseinu didaktikoa, programazioa eta materiala**

Idazketa oso arlo garrantzitsua da eta lantzeko nahitaezkoa. Konprobatu ahal izan dudanez, honen inguruko erabaki gehienak irakasleen esku daude; eskolak materiala eskaintzen du baina irakasleak erabakitzen du zer eta nola egin, beraz, honek ardura handia hartzen du. Hortaz, bigarren helburua haintzat harturik, idazketaren lanketaren inportantzia eskola barnean konfirmatu egin da. Diseinu didaktikoa egiterako momentuan jarduera sinpleetatik abiatzea da onena. Hitza ezagutzetik, ondoren esaldiak osatzera, amaieran testuak sortzeko (testu labur eta sinpleak) gai izanik. Gallegok (2016) dioen bezala, elkarrizketaturiko irakasleek berresten dute haurrentzat ezaguna denetik hasi behar dela, haien testuinguruaz baliatu, ikaskuntza errazteko edota erakargarriagoa egiteko. Gomezek (2020) esandakoa berretsiz, haurren errealitatean zentratu behar da, haien interesak eta gustuak ezagutu behar dira hauetaz baliatzeko eta nahi dena lantzeko, kasu honetan, idazketa. Betiere eta Irakasle 4k esaten duen bezala, helburu batekin idaztera bultzatu behar ditugu, idazketa zerbaitetarako egiten dutela ikus dezaten, hau da, komunikatzeko.

Horrez gain, garrantzitsua da denborak eta ikasleen erritmoak errespetatu behar direla kontuan izatea. Horregatik idazketaren arloa lantzerako unean programazio baten inguruan hitz egiteak ez du zentzu handirik. Ikasleen erritmoak errespetatze aldera, programazioaren denbora zehazteak honekin bat ez egitea esan nahi du. Gehienez, jarduerak zailtasun mailaren arabera progresioan zehaztea ongi legoke jarduera sinpleenetatik abiatzeko, hauek menderatu ostean, konplexuago direnekin jarraitzen dela ziurtatzeko, alabaina, malgutasun puntu batekin.



Lehenengo kategoria honetako azkeneko gaiari erreparatuz, ikusi da material anitza izatea ikasleen ikaskuntzan lagungarria dela. Azken finean lan honetako hirugarren helburua gogora ekarriz, bi eskoletan idazketa sustatzeko erabiltzen dituzten materialak ezagutu egin dira. Horregatik ondorioztatu da halabeharrez material mota konkretu batekin zailtasunak badituzte, beste batera jo dezaketela laguntza eske. Horrez gain, ikasleek haientzat erosoena edo ulergarriena dena erabili dezakete. Bestalde, eta borragomaren erabilera aipatuz, honek estresa, antsietatea eta obsesioa suposatzen die ikasle askori. Halaber, hau etengabe erabiltzeak ez die ikasleei egindako akatsak ikusi edo berrikusteko aukerarik ematen eta, ondorioz, Cassany eta besteak (1994) esandakoa berretsiz, ezin dute haien akatsetatik ikasi. Oso metodo ona iruditzen zait ikasleei hasieran hau erabiltzen ez uztea eta bestelako metodo edo irizpide batzuk zehaztea “zuzenketak” egiteko edota akatsak azpimarratzeko, adibidez, gaizki idatzitakoa parentesi artean jarri edota gaizki egindakoa azpimarratzea. Gerora, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara iristean, idazketa garatuago eta haien buruekiko autokontrol gehiago dutela, borragoma erabiltzen hasi beharko lukete. Hau da, ezin dugu utzi ikasleei idaztea estresa, frustrazioa edota antsietatea eragitea.

## **7.2. Idazketaren sustapena**

Idazketa sustatzeko edozein momentu eta edozein egoera aprobeztatu daiteke. Edozein arlotan, edozein gauza sinpletarako, idazketa erabili dezakegu, hala nola, gurasoei oharrak edota gonbidapenak bidaltzeko, esaldi laburrak idazteko edozein ikasgaitan, ikasgela/eskola apaintzeko, izenak edonon (mahaietan, koadernoetan, liburuetan, kaxotxetan) jartzeko... Honek bat egiten du Fonsek (2004) eta Gallegok (2016) aipatutakoarekin, irakaslea hezkuntza profesionala den aldetik, ikasleak irakurle eta idazle gaituak izateko aukerak sortuko dituela. Betiere helburu komunikatibo argi batekin. Modu honetan ere eta GrAL-eko bigarren helburua bete egin dela ziurtatuz, ikasleek ikusi eta bizi dezakete zein beharrezkoa den idazketa eta egunerokotasunean zenbatetan erabili behar duten, honela, honen beharra, hau da, idazten jakitearen beharra sentituko dute. Hala ere, Irakasle 2k dioen bezala, ratioak altuegiak dira eta 25 ikasleri heltzea idazketa bezalako hain berezia den arlo bateri oso zaila da. Beraz, nahita ez, irakasle bakar batek hau eroso egitea eta ikasle guztien beharrei iristea oso zaila da.

## **7.3. Umearen inguruko kanpo faktoreak**

Bizitzako edozein arlotan, maiz, gure esku ez dauden hainbat faktoreek dute eragina egiten dugun orotan. Egindako ikerketaren ostean eta GrAL-eko hirugarren helburua betetz -bi eskoletako irakasleen iritziak gehiago ezagutzea-, ondorioztatu daiteke Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleengan, idazketa lantzerako garaian, behintzat, orokorrean ez

dagoela eragin nabarmena sortzen duen kanpo faktorerik. Familiaren laguntza jasotzeak zein gurasoen ikasketek edota anai-arreba helduak izateak ez du desberdintasunik eragiten ikasleen artean. Alabaina, zerbaitek eragina izatekotan, ez da gurasoen laguntza etxean jasotzea edota hauek dituzten ikasketak, baizik eta hauen izaerak izan dezake eragin gehien. Bestalde, ikasleen jaiotza data izan daiteke galdetutako kanpo faktoreen artean eragin gehien izan dezakeena, baina ziurtasun handirik gabe. Hala ere, Ferreirok (1999) dioen bezala, elkarrizketatutako irakasleek konfirmatzen dute umeak idazketaren ikaskuntza prozesu honetan hasteko, heldutasun batera iritsi behar dutela lehenago. Datu hau ikasleek duten heldutasunarekin harremantzen bada ere, lehenago hala beranduago jaiotzeak ez du ziurtatzen heldutasun maila lehenago hala beranduago jasango duela umeak. Ikerketaren alderdi hauekin amaitzeko, generoak ere ez duela inolako eraginik ondorioztatu daiteke, ikasle hain txikien artean, behintzat. Beraz, ardura handikoa da irakasleek haien buruan dituzten pentsamenduak kontrolatzea nahigabe ikasleen aurrean iritzi edo benetakoak ez diren ezaugarri batzuk ez ezartzeko.

#### **7.4. Irakaslearen papera eta ebaluazioa**

Azkeneko atal honek bi eskoletako metodologiak sakonki ezagutzeko aukera eman du lan honetako hirugarren helburua betetz. Beraz emaitzei erreperatuz, irakasleei eta hauek egindako ebaluazioei dagokienean, ikusi da ikasleak idazten bakarrik uztea oso interesgarria izan daitekeela hauek idazketarekiko sentitzen dutena edo idazketarekiko duten harremana ikusi eta aztertzeko. Beraz, ondorioztatu daiteke bertatik soilik behaketa bidez ikasleek gustuko al duten, disfrutatzen duten, behar bat bezala ikusten al duten, gorrotatzen duten ala estresa suposatzen al dien miatu dezake irakasleak. *Feedback*ari dagokionez, hau nahitaezkoa izango da beti ikasleek ere egiten dutenaz jabetu daitezen. Egokia izango litzateke ikasle bakoitzarekin banan-banan egindakoa aztertzea, akatsak partekatzea baita ongi egindakoa ere azalartzea. Izan ere, jadanik aurretik aipatutako kezka berdina -ikasgeletan ikasle kopurua altuegia dela guztien beharrak asetzeko- oztopo bilakatzen da hau lortu edo bete nahi denean. Gauzak horrela, ikasle talde osoaren artean zein talde txikitik zuzenketak egitea, batek ikusten ez duena beste batek ikusi dezakeelakoan, lagungarria eta onuragarria izan daiteke guztientzat. Hiruhileko amaieran, irakasleek beti nota bat jarri beharko dutenez, zenbaki zein idatzizkoa izanda ere, lan hori errazteko ikasleek hilabeteetan zehar egindako lanak bildu edota argazkiak atera beharko lituzkete, ondoren ikasleen eboluzioa arakatu ahal izateko.

Idazketarekin harremana duten jarduerak proposatzean, arau batzuk gogoratzea ikasleentzat lagungarria izan daitekeela ondorioztatzen da, horrek egingo duten lanarekiko lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza transmititzen dielako. Batzuetan hainbat ikasleek

honen beharra dute haien lana egin aurretik, idazketari beldurra diotelako edo oso perfektionistak direlako eta dena ongi egiteko beharra dutelako. Honek guztiak Guasch-ek (2009b) esandakoa berresten du ikasleak idazten ikasten hasterako garaian jakin behar duelako zer idatziko duen, norentzat, zein helbururekin etab.

Diktaketei dagokienez, nagusiki irakasleak laguntzeko baliabidea dira. Hauen erabilera egokia da irakasleak ikasleak non dauden edo zein fasetan aurkitzen diren jakiteko, betiere, hau ikasleentzat estresa suposatzen iritsi gabe. Aitzitik, diktaketeekin ez bezala, letren kopiaketak eta kaligrafia lantzeak ez du ezertarako balio. Izan ere, pertsona bakoitzak bere modura idazten du eta, Tafallako Ikastolako irakasleek adierazi bezala, idazten doazen bitartean hau praktikatzen dute. “Ni konturatu naiz zenbat kostatu zaigun erredondila hori egiten ikastea eta orain ari dira letra aldatzen” (Irakasle 3). Datu horiei erreparatuz, ikasleak laster haien modura idazten hasten direla ikusi da. Horregatik ondorioztatu da ikasleei nahi duten moduan idazten utzi behar zaiela baldintza bakarrarekin, idazten dutena norbaiti zerbait komunikatzeko dela, haiek beste edonork ulertzeko idatzi behar dutelako.

Arlo eta adin honetan, ebaluatzeko tresnarik hoberena eta irakasleen artean nagusitzen dena behaketa da. Irakasleei lana errazteko eta behaketa hau kontrolatuagoa izateko, errubrika batzuk sortu eta hauetan oinarritzea metodo on bat da. Era berean, elkarrizketatutako irakasleek Bilbatuak (1996) dioena berresten dute, hots, ezin da zorrotzegia izan Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklo honetan garrantzitsuena ikasleek aurrera egitea delako, berdin duelako zein erritmotan edo nola, aurrera egiten duten bitartean.

Irakasle batek etengabeko berrikuntzan eta ikaskuntzan jarraitu behar du, Tafallako Ikastolako irakasleak bezala, non lehen eta oraingo metodoen arteko desberdintasunak konparatu dituzten, erabilitako irakaskuntza metodoak ikasleen antsietatearen eragina suposatu dezakeen ikusi duten eta aldaketa bat egitera animatu diren. Era berean, elkarrizketatutako irakasleen erantzunen azterketak egiaztatzen dute Garduñok (2019) esandakoa, ez dela metodo konkretu bat erabiltzen, ikaslearen arabera eta helburuaren arabera metodoen nahasketa egitea onena izango litzatekeela. Taldearen eta ikasleen arabera dena aldatzen delako.

Laburbilduz, GrAL honen helburu bat bi eskoletan idazketa irakasteko erabiltzen diren metodologiak ezagutu eta zehaztea den heinean, Gasteizko Errekabarri eskola publikoak metodo sintetikoa (fonetikoa) eta multisensoriala erabiltzen dituela ondorioztatu da. Bai silabatik hitzarako ikaskuntzan oinarritzen delako idazketa irakasteko baita erabiltzen dituen

material anitzengatik, ikusmena eta ukimena bezalako zentzuak ere erabiltzen dituelako. Bestalde, Tafalla herriko itunpeko Ikastolaren kasuan, metodo mistoan oinarritzen dira idazketaren irakaskuntzarako, nagusiki testu edo ipuintxoetan oinarritzen direlako eta bertatik abiatuta gainontzeko guztia egiten dutelako.

Gauzak horrela, aurretik aipatu bezala, irakasleak idazketa irakatsi bitartean beste hainbat alderdiri kasu egin behar diote. Honako eremuetara egon behar dira erne bestak beste: metodo guztiak ezagutzen dituztela, egokiena aukeratzen dutela eta egiten dutena ikasleentzat positiboa dela; ikasleen beharrak asetzera iristen dela, nola egin hau lortzeko ikasgeletan hainbeste ikasle izanik; ikasleen eboluzio eta aurrerapenei zain egon edota egiten dutena ongi egin eta egokia den.

Urteak pasa ahala metodo desberdinak probatzearen eraginez posible izango litzateke eginkizun hauei erantzunak aurkitu eta bete direla ziurtatzea. Horregatik irakurketa-idazketa irakasteko metodo desberdinak aztertu eta plazaratzen dituzten ikerketak oso baliagarriak dira hezkuntzan, irakasleak haien artean lagunduz eta bizipenak partekatuz sistema honek baliabide gehiago lortzen dituelako eta etengabeko ikaskuntza eta berrikuntza jarraitzen laguntzen duelako. Ondorioz, irakasleek erantzukizun handia dute irakasleak alfabetatu eta gizarteratze aldera.

## **8. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK**

GrAL honetan egindako azterketak hainbat muga izan ditu eta hauen aurrean hobetzeko proposamenak ere aurkezten dira hurrengoan zabalagoa den ikerketa bat egiteko asmoarekin. Ikerketa hau eremu diferenteetako eskoletako irakasle gehiagori eginez gero, emaitza desberdinak topatzeko aukera legoke, erantzunen artean aniztasuna ekarriz. Adibidez, idazketaren ikaskuntza umeen generoak eragina duela baieztatzen duena, diktaketen aurkako eta letren kopiaketen aldeko irakaslea edota idazketa lantzeko baliabide teknologikoak erabiltzen dituen.

Ikertutako eskoletako egunerokotasunak diferenteak dira haien artean, baina errealitatea ere anitza da egungo gizartean dauden bestelako eskoletan (hala nola, ghettoak bilakatu diren eskolak, eskola pribatuak, herri eskolak) irakasleei honelako galdetegia pasatzean, ikerketak egungo bestelako ikastetxe gehiago hartuko lituzke bere gain. Hemen egindakoaren kasuan, hiri bateko eskola publiko eta anitz baten eta herri bateko itunpeko Ikastola bateko bizipenak aztertzeke aukera izan da.

Horregatik, oso interesgarria izango litzateke ikerketa honetan erabilitako inkesta beste eskola mota batzuetako irakasleei pasatzea, haien erantzunak aztertu, emaitzak partekatu eta konparatzeko, modu honetan egun daukagun gizarte eta errealitatera gehiago hurbiltzeko eta ateratako ondorioekin idazketaren ikas-irakas prozesua arrakastatsua izateko aukera gehiago eman daitezen.

## 9. ERREFERENTZIAK

60/2014 Dekretua (2014). *Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena*, BON, 2014ko irailaren 5ean.

126/2014 Dekretua (2014). *Currículo Básico de la Educación Primaria*, BOE, 2014ko martxoaren 1ean.

236/2015 Dekretua (2015). *Heziberri 2020*, Eusko Jaurlaritza, 2015eko abenduaren 12an.

Bilbatua, M. (1996). Irakurketa eta idazketaren hastapenak. *Hik Hasi: Euskal Heziketarako Aldizkaria*, (10), 34-39.or.

Cassany, D., Luna, M. eta Sanz, G. (1994). 6.5. Expresión escrita. In Cassany, D., Luna, M. eta Sanz, G. (ed.), *Enseñar Lengua*. Grao.

Ferreiro, E., Castorina, J. A., Quinteros, G., Goldin, D., eta Torres, R. M. (1999). *Cultura escrita y educación: conversaciones de Emilia Ferreiro con José Antonio Castorina, Daniel Goldin y Rosa María Torres; edición de Graciela Quinteros*. Fondo de Cultura Económica.

Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir*. Grao.

Gallego, M.M. (2016). *Evolución de los métodos lecto-escritores (1970-2013)*. (Doktorego tesia). Universidad de Málaga. <http://hdl.handle.net/10630/11555>

García-Risco, M. (2019). *El Método de los Cuatro Bloques en el proceso lectoescritor*. (Master amaierako lana). Universidad Internacional de La Rioja.

Garduño, J. (2019). *Adquisición de la lectura y escritura, en los alumnos de primer grado de Educación Primaria*. (Ikerketa tesia). Escuela normal de Coatepec Harinas.

[https://ade.edugem.gob.mx/bitstream/handle/acervodigitaledu/30230/HOBMTT3\\_Adquisici%c3%b3n%20de%20la%20lectura%20y%20escritura.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://ade.edugem.gob.mx/bitstream/handle/acervodigitaledu/30230/HOBMTT3_Adquisici%c3%b3n%20de%20la%20lectura%20y%20escritura.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Gomez, M.L. (2020). *Adquisición de la lecto-escritura en primer grado de Primaria*. (Txosten teknikoa). “Narciso Mendoza” Lehen Hezkuntza eskola. [https://ade.edugem.gob.mx/bitstream/handle/acervodigitaledu/37388/ARSANGUDIN123\\_Adquisici%c3%b3n%20de%20la%20lecto-%20escritura%20en%20primer%20grado%20de%20primaria.pdf?sequence=2&isAllowed=y](https://ade.edugem.gob.mx/bitstream/handle/acervodigitaledu/37388/ARSANGUDIN123_Adquisici%c3%b3n%20de%20la%20lecto-%20escritura%20en%20primer%20grado%20de%20primaria.pdf?sequence=2&isAllowed=y)

Guasch, O. (2009a). 10. Kapitulua: Idazmena. In Ruiz, U. (ed.), *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan* (285-311.or), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Guasch, O. (2009b). 11. Kapitulua: Idazlanak egiten irakastea. In Ruiz, U. (ed.), *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan* (285-311.or), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Guzmán, R. J. (2017). Aprendizaje de los profesores sobre alfabetización y métodos de enseñanza. *Folios: revista de la Facultad de Humanidades*, (46), 105-116.

Ibarra, I. (2009). *Hik hasi: Idazketaren didaktika urtez urte* (24.monografikoa). Xangorin-hik hasi.

Jimeno, P. (2009). *Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan* (1.zbk Blitz sorta gorria). Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua. <http://hdl.handle.net/11162/46301>

Kasares, P. (2018-19). *Hizkuntzaren Didaktika: Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Limia, S. (2018). *Instrucción en la Facilitación de la Planificación en Escritura en Estudiantes de Educación Primaria*. (Doktorego tesia). Universidad de Vigo.

Llata, M.L. (2019). *La enseñanza / aprendizaje de la escritura en Educación Primaria*. (Monografía). Universidad Nacional de Educación, Facultad de Pedagogía y Cultura Física, Escuela Profesional de Educación Primaria.

[https://repositorio.une.edu.pe/bitstream/handle/20.500.14039/2921/M025\\_16161937T.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://repositorio.une.edu.pe/bitstream/handle/20.500.14039/2921/M025_16161937T.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Martinez, I. (2012). *Enseñar a leer y escribir para aprender en la Educación Primaria: diseño y evaluación de un programa de intervención de escritura de síntesis a partir de varios textos*. (Doktorego tesia). Universidad Autónoma de Madrid. [https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/11284/56236\\_martinez\\_alvarez\\_isabel.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/11284/56236_martinez_alvarez_isabel.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Monje, P. (1993). La lectura y la escritura en la Escuela Primaria. *RIFOP: Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 18 (bol), 75-82.or.

Oihartzabal, L. (1996). Irakurketa esanguratsua. *Hik Hasi: Euskal Heziketarako Aldizkaria*, (10), 8-32.or.

Oihartzabal, L. (2000). Los primeros pasos en el aprendizaje de la lectoescritura. In Ruiz, U. (ed.), *Didáctica de la segunda lengua en Educación Infantil y Primaria* (249-272.or). Editorial Síntesis.

Peralta, H.A. eta Resurreccion, A.Z. (2021). *La psicomotricidad fina y la iniciación de la escritura en los estudiantes de 1º grado de Educación Primaria*. (Ikerketa proiektua). Universidad Femenina del Sagrado Corazón, Facultad de Ciencias de la Educación, Escuela Profesional de Educación Primaria. [https://repositorio.unife.edu.pe/repositorio/bitstream/handle/20.500.11955/777/Peralta%20Tapia%2cHilda%20Alicia%20y%20Resurrecci%c3%b3n%20Quispe%2c%20Alejandra%20Z%c3%a9fora\\_2021%20%282%29%20%282%29.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://repositorio.unife.edu.pe/repositorio/bitstream/handle/20.500.11955/777/Peralta%20Tapia%2cHilda%20Alicia%20y%20Resurrecci%c3%b3n%20Quispe%2c%20Alejandra%20Z%c3%a9fora_2021%20%282%29%20%282%29.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Ramirez, J., Calzadilla, O., Hernández, I. eta Guerrero, P.F. (2013). La preparación del niño para el aprendizaje de la escritura en primer grado. *Didasc@lia: Didáctica y Educación*, 5(3), 17-26.or.

Rasero, J. eta Alcalá, J. (1995). Lectoescritura en la escuela. Una aproximación a su metodología de aprendizaje en la provincia de Cáceres. *Campo Abierto*, (12), 47-63.or.

Ridao, S. eta Rodriguez, F.J. (2019). El proceso de enseñanza/aprendizaje en la conciencia silábica del alumnado hispanonativo universitario sobre los hiatos. *Entrepalavras*, 9(2), 378-395 or. <http://dx.doi.org/10.22168/2237-6321-21571>

Rodriguez, G. (2019). *Enseñanza de la escritura*. (Monografía). Universidad Nacional de Educación, Facultad de Pedagogía y Cultura Física, Escuela Profesional de Educación Primaria.



## **10. ERANSKINAK**

### **1. eranskina - Elkarrizketen galderak (10 galderak).**

#### **A. Idazketa lantzeko jardueren eta lan egiteko moduaren inguruan:**

- 1- a) Zeintzuk dira idazketa lantzeko egiten diren jarduerak nagusiak?
  - b) Ba al dago orden finkoren bat jarduerak planteatzeko / planifikatzeko, hilean / hiruhilabeteetan?
  - c) Zergatik egiten da horrela?
- 2- Nola sustatzen duzue idazketa, hau da, noiz edo zein denbora/momentu erabiltzen da/dira hau egiteko?
- 3- Idazketarekin harremana duten, edo idazketan oinarritzen diren jarduerak klasean burutzean ikasleek gainean egon ohi zarete hauek egiten dutena ikuskatzeko ala bakarrik uzten dituzue? Bakarrik utziz gero, ze feedback mota ematen diezue ikasleei? Adibidez, egindakoa jaso eta komentatu? Ikasle bakoitzaren koaderno/portfolio propio batean gorde? Koebaluzioa (binaka jarri eta elkarri zuzendu)? Errubrika antzeko zerbaiten bidez?
- 4- Zein material erabiltzen duzue idazketa indartzeko edota umeei laguntzeko?
- 5- Gela barruan, idazketarekin erlazionatuta dagoen jarduerak bat egiterako garaian:
- a. Bakarrik uzten dituzue nahi dutena idazten ala hasi baino lehen gogoratzen diezue ze urrats eman behar duten (hau da, andamiajea eskaintzea)? Hala bada, zergatik?
  - b. Diktaketak egiten dituzue? Baiezkoa bada, zergatik edo zertarako?
  - c. Letren kopiaketak egiten dituzue? Zergatik?
- 6- Idazketa lantzean, borragoma erabiltzeko aukera dute ikasleek?
- a) Zeintzuk dira arrazoiak?
  - b) Eta zein kurtsotatik aurrera erabil dezakete borragoma? Zergatik desberdintasun hori?

#### **B. Idazketaren lehenengo hastapenetan eragina duten faktoreak:**

- 7- Badaude idazketan hasteko prozesuan eragina duten faktoreak?
- a. Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragina dauka?
  - b. Familiaren ikasketa-mailak, hau ezagutzeko aukera izatekotan, eraginik badu?

- c. Ikasleen artean anai-arreba nagusiak dituzten eta ez dituztenen artean desberdintasunik ikusten al da idazten hasteko garaian? Laguntzarik jasotzen al dute ikasleek haien anai-arreba nagusiengandik?
- d. Lehen Hezkuntzako maila bereko ikasleen artean idazten hasteko garaian desberdintasunik ikusten al da jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean?
- e. Desberdintasunak igartzen dituzu, generoaren arabera, hau da, neskatoen eta mutikoen artean idaztean?

### **C. Idazketaren ebaluazioa:**

8.- Zer nolako irizpide eta tresna jarraitzen/erabiltzen dituzue ebaluatzeko eta haien idazten ikasteko prozesua aurrera egiten ari duela jakiteko?

### **D. Teknologia berriak eta etorkizuna:**

9.- Nolako eragina izan dute teknologia berriek idatzen ikasteko prozesuan?

10.- Uste duzu etorkizunean idazten ikas-irakasteko prozesua aldatuko dela? Zergatik?

---

## **2. eranskina - Irakasle 1**

### IRAKASLEEI EGIN ZAIZKIEN GALDERAK

**1.- Zenbat urtez aritu zara lanean irakasle bezala?** 6-8 urte gutxi gorabehera, eskola honetan 3. urtean dabil.

**2.- Zein ziklotan aritu zara lanean beste urteetan?** Gehienetan lehenengo zikloan baina urteren batean hirugarren zikloan ere.

**3.- Beti tutorea izan zara edo beste hezkuntza arloren batean ere aritu zara?** Normalean tutore baina aholkulari bezala egonda nago.

### IDAZKETAREN INGURUKO GALDERAK

#### **A. Idazketa lantzeko jardueren eta lan egiteko moduaren inguruan:**

**1.- a) Zeintzuk dira idazketa lantzeko egiten diren jarduera nagusiak?** Lehenengo mailan herradura erabiltzen da, bertan kontsonante eta bokalak agertzen dira eta horiekin hasten den hitz bat. Hori bisualki daukate denbora guztian. Gero soinuen kutxa eta letrak

banan banan lantzen doaz soinuena bidez eta eskolako zein ekarritako materialekin osatzen dute, kutxan sartuz objektua. Gero zerrendak egiten hasten dira: hilabete, asteko egunak, klasekideen izenen zerrenda, kakoetako izenak, koadernoetan izenak, eta honela, poliki poliki idazketa lantzen hasten dira.

**b) Ba al dago orden finkoren bat jarduera horiek planteatzeko / planifikatzeko, hilean / hiruhilabetean?** Normalean ez, urte guztian lantzen den zerbait da, ume bakoitzak bere garapen pertsonala dauka eta ume bati ezin diogu eskatu hilabete batean alfabetoa ikastea, urte osoan egiten den zerbait da, batzuk lehenago eta beste batzuk geroago barneratzen dute eta hauek dira burutzen diren ekintzak.

**c) Zergatik egiten da horrela?** Garapenaren arabera delako, bakoitzaren funtzionamendua da.

**2-. Nola sustatzen duzue idazketa, hau da, noiz edo zein denbora/momentu erabiltzen da/dira hau egiteko?** Gu gehienbat hasten gara izenak idazten, hasten direlako hau da nire laguna, hau da ez dakit zer, nire urtebetetzea da, *nananana*... Orduan lehenengo mailan badugu proiektu bat egutegiarena eta horrek ahalbidetzen edo derrigortzen digu idazketa minimo bat egitera (hilabeteak, haur bakoitzaren urtebetetze eguna eta honen eguna idaztea, asteko egunak) eta gutxi gorabehera hortik hasten gara idazketarekin.

**3-. Idazketarekin harremana duten, edo idazketan oinarritzen diren jarduerak klasean burutzean ikasleen gainean egon ohi zarete hauek egiten dutena ikuskatzeko ala bakarrik uzten dituzue?** Denetarik, batzuetan gainean egon behar zara eta batzuei agian arreta gehiago jarri, baina orokorrean haiek idazten duten modua errespetatzen da, hau da, ez dugu borragomarik erabiltzen, ez dugu zuzentzen, zerbait gaizki idatziz gero, guk zuzentzen dugu baina esanez parentesien artean jartzea eta alboan berriro hitza edo esaldia idaztea, horrela konturatzen dira non dagoen akatsa eta nola zuzendu dezaketen. Gainean egoten gara hasieran soinuak edo letrak edo hizkiak banan banan esaten goazelako diktaketa batean, baina gero ya behin martxa hartuta batzuk bakarrik aritzen dira hortan. **Bakarrik utziz gero, ze feed-back mota ematen diezue ikasleei? Adibidez, egindakoa jaso eta komentatu? Ikasle bakoitzaren koaderno/portfolio propio batean gorde? Koebaluazioa (binaka jarri eta elkarri zuzendu)? Errubrika antzeko zerbaiten bidez?** Koadernoari batzuetan argazkiak ateratzen dizkiogu gero ikusteko nola eboluzionatu duten ikasturte hasieratik amaierara arte. Batzuetan eurek bertan idatzitakoa edo egindako lana talde handian irakurtzen dute eta orduan konturatzen dira hemen gaizki idatzi dut, hau ez dago ondo, hau ez dut ulertzen...

**4.- Zein material erabiltzen duzue idazketa indartzeko edota umeei laguntzeko?** Areneroa (kutxa bat hondarra edo arearekin eta bertan letrak edo silabak idatzi daitezke), gero arbel batzuk (boligrafoak borratu egiten direnak letrak eta ikasteko) eta lijazko letrak (atzaparra gainetik pasatuta eurak jakiteko nola edo zein modutan erabili behar duten arkatza gero letra hori idazteko).

**5.- Gela barruan, idazketarekin erlazionatuta dagoen jarduera bat egiterako garaian:**

- 1. Bakarrik uzten dituzue nahi dutena idazten hala hasi baino lehen gogoratzen diezue ze urrats eman behar duten (=andamiajea eskaintzea)? Hala bada, zergatik?** Normalen arau batzuk daude. Adibidez, koadernoan idazten badugu haiek badakite koadernoan nola erabili behar den. Koadernoan idaztean badakizkitez arauak, hau da, lehenengo lerroan data, bi lerro utzi eta gero izenburua. Gero hasten gara diktaketarekin edo zenbakien idazketarekin edo dena delakoa. Badakite marra gorritik beste aldera ezin garela pasatu eta holakoak badituzte. Ondiokan puntuazio marka eta guzti horiek ez dituzte kontrolatzen baina bueno hori joango gara aurrerago garatzen.
- 2. Diktaketak egiten dituzue? Baiezkoa bada, zergatik edo zertarako?** Diktaketekin konturatzen gara zein ume doan aurrera, zein ez doan aurrera, zein dagoen estankatuta, ze letratan daukaten hutsuneak, ea ispiluarena egiten duten jakiteko dislexiak dauden eta nolakoak, eta bai egiten dugu diktaketa bai hizkuntzaren ingurukoak, ipuinak, testu motzak edota zenbakien diktaketak eurak zenbakikuntza garatzeko.
- 3. Letren kopiaketak egiten dituzue? Zergatik?** Normalean ez, kopiaketa ez, agian hasieran lehenengo mailan bai hilabeteak idazten genituen eta kopiak egiten zituzten baina saiatzen gara ezetz. Ume bakoitzak daukalako bere idazteko forma edo modua orduan pixka bat izan behar gara esku zabalak zentzu horretan, beraz ez ditugu kopiaketak egiten normalean.

**6.- Idazketari buruz, eskola honetan ez zaie borragoma erabiltzeko aukerarik ematen.**

**a) Zeintzuk dira arrazoiak?** Borragoma erabiltzen badute batzuk bilakatzen dira hiper-mega perfekzionistak eta akatsa ikusten ez badute ez dute gaizki egindakoaren sententzia ikusten. Horren ordez parentesia erabiltzen da hauek ikusteko zer egin duten gaizki eta akatsa zuzentzeko.

**b) Eta zein kurtsotatik aurrera erabil dezakete borragoma? Zergatik desberdintasun hori?** Normalean bigarren mailara arte koaderniloan gauza batzuk egiteko bai uzten da,

baina beste formula batzuk erabiltzen saiatzen da. Ez badu ume bakoitzak bere akatsa ikusten orduan akatsik egin ez duela dirudi. Hirugarren mailatik aurrera erabiltzen uzten zaie, ya berez idazketa irakurketa prozesua menperatuta edo garatuta daukate.

## **B. Idazketaren lehenengo hastapenetan eragina duten faktoreak:**

### **7-. Badaude idazketan hasteko prozesuan eragina duten faktoreak?**

- 1. Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragina dauka?** Bai, etxean laguntza jasotzen badute nabaritzen da eta hizkuntzaren arabera ere bai, hau da, familia erdalduna bada soilik, normalean euskarazko hiztegia pobregoa da eta gehiago kostatzen zaie esaldi zuzen bat egitea edo gauzak eskatzea. Familia elebiduna edo euskalduna bada, askoz azkarrago hartzen dituzte euskararen esaldietako arauak.
- 2. Familiaren ikasketa-mailak, hau ezagutzeko aukera izatekotan, eraginik badu?** Nik uste dut ez dela gehio ikasketen gauza, nik badauzkat familiak gelan unibertsitarioak direnak, kriston lanak dituztenak, beste batzuk agian etxeko andre edo gizon direnak eta ez dauka zerikusirik. Hau da gehio pertsonarekiko nik uste, hau da, gurasoa bada zorrotza eta gurasoa prest badago seme-alabari etxean laguntzeko edozer gauza egingo du berdin du unibertsitaria izan, karrera bat izan, etxean lan egin edo dena delakoa.
- 3. Ikasleen artean anai-arreba nagusiak dituzten eta ez dituztenen artean desberdintasunik ikusten al da idazten hasteko garaian? Laguntzarik jasotzen al dute ikasleek haien anai-arreba nagusiengandik?** Batzuk bai, hau da, hau ere da pixka bat erlatiboa depende ze erlazio daukazun zure anai-arrebarekin. Baina egia da nagusien kasuan nire gelakoak txikienak baldin badira etxean eta anai, arreba, ahizpa... nagusia idazketan zerbait egiten ikusten badute saiatzen dira hau kopiatzen modu egokian edo ez egokian, baina bueno, normalean dira euren erreferente eta bai saiatzen dira berdina egiten.
- 4. Lehen Hezkuntzako maila bereko ikasleen artean idazten hasteko garaian desberdintasunik ikusten al da jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean?** Batzuetan ematen da, nik uste batzuetan igartzen dela, baina ez dut uste jaiotza dataren arabera denik, baizik eta ume bakoitzaren arabera. Hau da, ume bakoitzak bere momentua dauka, igual daude ume batzuk urtarrilekoak direnak eta dira oso umeak eta sinbolikoan daudenak eta oraindik ez daukatenak gogorik idazteko eta abenduko bat dela super heldua eta idazten duela eta irakurtzen duena super ondo. Ez da jaiotza dataren arabera, da umearen arabera.

5. **Desberdintasunak igartzen dituzu, generoaren arabera, hau da, neskatoen eta mutikoen artean idaztean?** Ezta, ez, nik denetik daukat.

### C. Idazketaren ebaluazioa:

8.- **Zer nolako irizpide eta tresna jarraitzen/erabiltzen dituzue ebaluatzeko eta haien idazten ikasteko prozesua aurrera egiten ari duela jakiteko?** Gehien bat behaketa egiten dugu, hau da, ondiokan dira ume oso txikiak, eta orduan egiten duguna da behatu, nola egiten duten lan, nola esertzen dira mahaian, nola idazten duten... Horretarako daukagu koaderno bat eta koaderno hortan daukagu irailetik ekainera arte, egiten ditugun ekintzak bertan daude plasmatutak eta hor ikusten dugu aurrera pausoak eman dituen, berdin jarraitzen duen edo dena delakoa. Gehien bat da behaketa. Frogak pasatzen dizkiegu? Ba bai, normalean igual lehenengo mailan pasatzen dugu froga bat jakiteko alfabetoaren letrak zeintzuk dakizkiten eta euren soinuak zeintzuk diren eta gero ekainean edo hau baino lehenago froga berdina pasatzen zaie jakiteko nola eboluzionatu duten.

Gauza batzuk dituzte betetzeko, hau da, curriculumaren arabera derrigorrezkoak dira, orduan lehenengo mailan bai hala bai ikasi behar dituzte behintzat alfabetoko letra guztiak, bere izen eta soinuak jakin behar dituzte. Bigarren mailan ya idazketa irakurketa barneratuta euki behar dute, orduan bai hor badauzkagu *item* batzuk bete behar dituztenak. Batzuk lehenago garatzen dituztela, beste batzuk beradugo... ba hor dago zalantza, betikoa, nota... nota *puñeteroa* jarri behar dugula.

### D. Teknologia berriak eta etorkizuna:

9.- **Nolako eragina izan dute teknologia berriek idazten ikasteko prozesuan?** Nik ez dut ikusi, egia da ez naiz han zaharra bale, baina igual lehenengo zikloan ere ez da hainbeste nabaritzen, ez dute igual mugikorra edukitzeko aukerarik, tabletarekin gutxi... Oraindik oso txikiak dira baina nik uste bai goiko zikloetan eta seigarren mailan behin egon nintzela hor bai nabaritzen da mobilakin edo ordenagailuakin... Erabilzen dituzten idazteko moduak, hitzak moztea, dena 'k'-rekin dena 'i' latina edo *el por* 'x'-arekin... Hor bai igartzen da gero eskolan idatzi behar dutenean akats ortografiko pila bat daudela. 'H'-ak ez dakite non erabili behar diren... *Es que* da pixka bat *locurón*... Markak edo puntuazio ikurrak ez dakizkitez erabiltzen... Baina nik uste dut oraindikan lehenengo zikloan ez dela gertatzen.

10.- **Uste duzu etorkizunean idazten ikas-irakasteko prozesua aldatuko dela? Zergatik?** Aldatuko da? ez dakit. Aldatu beharko da? *Pues* seguraski. Ze nik uste dot urte batzuk barru lanbide asko ordenagailuz egingo direla eta dana izango da teknologikoa. Ez

dakit noiz e, eta nik espero dut irakaskuntzan jubilatzea. Baina nik nire garaian liburuak nituen eta dena eskuz egiten genuen, orain ez daukagu libururik eta pantaila digitalak dauzkagu. Pantaila digitalean akats bat egitean edo umeeak pantaila digitalean akats bat egitean automatikoki pantailak bakarrik zuzentzen dizu. Orduan... eta hori gaur egun gertatzen da, ya ez gera joan behar iraganera... da orain gertatzen dena. Gerora nik uste dut eskoletan edo gela bakoitzean ume bakoitzak eukiko duela bere portatila eta honekin lan egingo duela bertan. Nik badauzkat orain umeak hobeto kontrolatzen dutela ordenagailuan non dagoen letra bakoitza idaztea baino. Azkenean pantailekin bizi gara, teknologekin bizi gara, etxetik kanpo umeeak ez dute lehen bezala jolasten *lego*etara eta ez dakit zer... hartzen dabe tablet bat eta dena *papapapapa* bada taktila, edo etxeko ordenagailua edo gurasoen mugikorra. Orduan bai, nik uste aldatuko dela.

---

### **3. eranskina - Irakasle 2**

#### **IRAKASLEEI EGIN ZAIZKIEN GALDERAK**

**1.- Zenbat urtez aritu zara lanean irakasle bezala? 7 urte irakasle bezala lanean, horietako 3 eskola honetan.**

**2.- Zein ziklotan aritu zara lanean beste urteetan? 1a gehienetan Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan.**

**3.- Beti tutorea izan zara edo beste hezkuntza arloren batean ere aritu zara? Bai, beti tutore.**

#### **IDAZKETAREN INGURUKO GALDERAK**

##### **A. Idazketa lantzeko jardueren eta lan egiteko moduaren inguruan:**

**1.- a) Zeintzuk dira idazketa lantzeko egiten diren jarduera nagusiak?** Lehenengo mailan ba erabiltzen da asko soinuen kutxa, bertan identifikatzen dituzte ba letra bakoitzaren izena, letra bakoitzaren soinua eta erlazionatzen dute ba letra bakoitzarekin objektuak, pertsonak... Eta horren bitartez lantzen dugu. Berez, guk irakurtzen eta idazteko guk deitzen diogu gauza bati 'taburetea' zeinetan egon behar den edo jakin behar duten hizkien izena, hizkiaren soinua bai eta hizkiaren grafia eta orduan hiru horiek ezagutu behar dituzte (...). Gero ere, erabiltzen da asko idazketarako areneroa eta lija, eta lijan behatza pasatzen dute eta ikusten dute nola idazten den letra bakoitza eta gero praktikatzen dute areneroan. Beste batzuetan ere praktikau dezakete arbelean edo arbel txiki batzuk ditugu eurak

idazteko eta normalean errespetatzen dugu ume bakoitzaren denbora eta *pues* batzuk daukate erritmo bat beste batzuk beste erritmo bat eta hori errespetatzen saiatzen gara.

**b) Ba al dago orden finkoren bat jarduera horiek planteatzeko / planifikatzeko, hilean / hiruhilabetean?** Berez zuk planifikatu dezakezu baina azkenean ume bakoitzaren erritmoa errespetatzen denez, batzuetan luzatu daiteke edo ez, eta batzuetan batzuk behar dituzte bi hilabete eta beste batzuk sei. Berez soinuen kutzarekin hasten dira 5 urteko azkeneko hiru hilabetean eta gero hasten dira lehenengo mailan hasieratik eta suposatzen da hor *ya* joaten direla finkatzen pixka bat. Gero *ya* pasatzen gara daukagun herradura ere *apoyo* bezala, ikusteko, begiratzeko.

**c) Zergatik egiten da horrela?** Errespetatzeko... Bai, errespetatzeko eta bueno hori azkenean da metodo globalizatu bat, eurak joaten dira konturatzen, azkenean ikasketa esanguratsu bat da beraientzat, eurak konturatzen direnean gauzetaz, ez modu batean sartu eta ikasi eta hau horrela da eta hau horrela da. Beraientzat zentzu bat izan behar du.

**2-. Nola sustatzen duzue idazketa, hau da, noiz edo zein denbora/momentu erabiltzen da/dira hau egiteko?** Ba gehienbat laguntzaren bat sartzen denean gelan hasiera batean, ze hasieran 25 umeri heltzea oso zaila da eta normalean ba laguntza sartzen denean edo bikoizketak egiten genituenean. Gero proiektuekin zerikusia duten gauzak idazteko, norberaren bizitzarekin zerikusia duten gauzak idazteko... Normalean umearentzat esanguratsua den zerbait idazteko momentu horietan, baina laguntza dugunean lehenengo mailan gehienbat.

**3-. Idazketarekin harremana duten, edo idazketan oinarritzen diren jarduerak klasean burutzean ikasleen gainean egon ohi zarete hauek egiten dutena ikuskatzeko ala bakarrik uzten dituzue?** Hasieran bakarrik uzten diegu ze beraiek ez dutenean ikusten zer falta zaien, ez denean beraientzat... Imaginatu jaten dituztela hiru hizki, beraiek ez badute hori ikusten ez dauka zentzurik esatea falta zaizu hau, hau eta hau, beraiek ikusi behar dute. Orduan bai hasieran uzten ditugu pixka bat askeago eta gero *ya* bai hasten gara zuzentzen, baina zuzentzen beraiekin e, beraiek konturatzeko, “ea irakurri berriro”, “zer jartzen du?”, “zer uste duzu jartzen duela?” pixka bat hori.

**Bakarrik utziz gero, ze feed-back mota ematen diezue ikasleei? Adibidez, egindakoa jaso eta komentatu? Ikasle bakoitzaren koaderno/portfolio propio batean gorde? Koebaluazioa (binaka jarri eta elkarri zuzendu)? Errubrika antzeko zerbaiten bidez?** Idazketa normalean da beraiekin jarri eta banan banan saiatu, beraiek konturatzea zer den falta zaiena edo zer ez, baina ez diegu esaten (...). Guretzat idazketa danak daude ondo,



bakoitza dauka bere erritmoa, bakoitza dago bere mailan, bakoitza dago bere momentu horretan. Beraz, ondo ez da dena egoki idatzi duena, denak daude ondo.

**4.- Zein material erabiltzen duzue idazketa indartzeko edota umeei laguntzeko?** Daukagu herradura, areneroa, arbeltxo txikiak, soinuen kutxa ere...

**5.- Gela barruan, idazketarekin erlazionatuta dagoen jarduera bat egiterako garaian:**

- 1. Bakarrik uzten dituzue nahi dutena idazten hala hasi baino lehen gogoratzen diezue ze urrats eman behar duten (=andamiajea eskaintzea)? Hala bada, zergatik?** Urratsak esaten dizkiegu, ba koadernoaren egitura nola den, izenburua non jartzen den, data non jartzen den edo ohar bat idaztean oharraren egitura nolakoa den... Azkenean egituratzen diegu pixka bat.
- 2. Diktaketak egiten dituzue? Baiezkoa bada, zergatik edo zertarako?** Diktaketak bai, berez, bueno nire iritzi pertsonala da, diktaketekin lantzen duzu pixka bat soinua eta beraiek *ya* ikasten dutenean dekodifikatzen letra bat ez bakarrik bistaz baizik eta bere soinuarekin eta holan, ba pixka bat hori isladatzea koadernoan eta ere ikasteko ba hitzak banatzen... Badakizu hitzak banatzerakoan kolpe bat ematen dugu banatzeko.
- 3. Letren kopiaketak egiten dituzue? Zergatik?** Igual lehenengo mailan hasiera batean oharrak eta horrela idazteko eta etxera eramateko baina bestela kopiaketa gutxi.

**6.- Idazketari buruz, eskola honetan ez zaie borragoma erabiltzeko aukerarik ematen.**

**a) Zeintzuk dira arrazoiak?** Beraiek konturatzea zein den egiten duten akatsa edo zer edo zertan behar duten laguntza, beraiek konturatzea zer den gaizki egiten dutena. Ez da hartu, borratu... Baizik eta badaukazu hor hasierako eredu hori, beraz, *ya* zuzentzen duzunean igual ba konturatzen zara "*aiba ba bai, jan dut A, jan dut...*". Hori eta ere borragoma delako beraientzat kriston estresa, obsesionatzen dira pila bat borragomarekin eta azkenean ez dute ezer idazten egoten direlako borratu eta borratu.

**b) Eta zein kurtsotatik aurrera erabil dezakete borragoma? Zergatik desberdintasun hori?** 3. mailatik aurrera. Ba ez dakit, nik uste dut hor *ya* idazketa aldetik badute *ya* kontrol gehiago, ezagutza gehiago. Marrazkietan ere normalean *ya* ez dute erabiltzen *porque* azkenean gauza batetik beste bat sortu daiteke, ez? Baina nik uste dut dela ere bai 3. mailan daukatela ere autokontrol gehiago eta gauzetaz konturatzen dira. Bestela, benetan galtzen dute denbora pila bat borragomarekin.

## **B. Idazketaren lehenengo hastapenetan eragina duten faktoreak:**

### **7.- Badaude idazketan hasteko prozesuan eragina duten faktoreak?**

- 1. Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragina dauka?** Bai. Bai. Nik uste dut daukala eragin asko ze estimulazio jasotzen duten umeak etxean ere, txikitatik ipuinetara ohituta, ez ipuinak irakurtzera baizik eta entzutera.
- 2. Familiaren ikasketa-mailak, hau ezagutzeko aukera izatekotan, eraginik badu?** Ez.
- 3. Ikasleen artean anai-arreba nagusiak dituzten eta ez dituztenen artean desberdintasunik ikusten al da idazten hasteko garaian? Laguntzarik jasotzen al dute ikasleek haien anai-arreba nagusiengandik?** Nik ez dakit den laguntza edo ere motibazioaren aldetik ikusten dutenez nagusia ere (...). Bai, normalean, bai.
- 4. Lehen Hezkuntzako maila bereko ikasleen artean idazten hasteko garaian desberdintasunik ikusten al da jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean?** Ba, batzuetan igual ez, baina beste batzuetan igual bai. (...) *Esque* bai igartzen da, batzuk lehenengo mailara iristen dira bost urtekin eta beste batzuk sei, eta laister egingo dute zazpi. Hasiera batean bai.
- 5. Desberdintasunak igartzen dituzu, generoaren arabera, hau da, neskatoen eta mutikoen artean idaztean?** Nik ez dut igarri.

## **C. Idazketaren ebaluazioa:**

**8.- Zer nolako irizpide eta tresna jarraitzen/erabiltzen dituzue ebaluatzeko eta haien idazten ikasteko prozesua aurrera egiten ari duela jakiteko?** Eguneroko lanak erabiltzen ditugu, eguneroko behaketa. Proiektuarekin zerikusia duten gauzak, diktaketak, dena. Eguneroko behaketa hori da.

## **D. Teknologia berriak eta etorkizuna:**

**9.- Nolako eragina izan dute teknologia berriek idatzen ikasteko prozesuan? (...) *Esque*** idazketarako prozesuan eragina? Ba igual bai, baina orokorrean eragina izan du denean, ez? Osea gauza batzuetarako ondo dago eta beste batzuetarako... Ez dakit zer esan egin esan. Nik uste igual handiagoetan igartzen da gehien bat. Badaude baliabideak baina azkenean guretzat garrantzitsuena eskua entrenatzea da, grafia, psikomotritate fina.

**10.- Uste duzu etorkizunean idazten ikas-irakasteko prozesua aldatuko dela? Zergatik?** Ba ez dakit, espero dut ezetz (...), ez egitea dena ordenagailuz. Azkenean oso

garrantzitsua da eskuz idazten ikastea, eta gainera, idazten lantzen duzu hori, psikomotrizitate fina ere asko lantzen duzu. Lehenago lantzen duzu idazteko baina gero idazten duzun bitartean ere lantzen duzu. Ez dakit aldatuko den.

---

#### **4. eranskina - Irakasle 3 eta 4**

##### IRAKASLEEI EGIN ZAIZKIEN GALDERAK

**1.- Zenbat urtez aritu zara lanean irakasle bezala?**

**2.- Zenbat urte daramatzazu lanean eskola honetan?**

**3.- Zein ziklotan aritu zara lanean beste urteetan?**

**4.- Beti tutorea izan zara edo beste hezkuntza arloren batean ere aritu zara?**

**Irakasle 3:** Ni daramatzat lanean 30 urte. Horietatik 20 edo 18 Haur Hezkuntzan, gero egon nintzen lau zuzendari, eta gero hortik aurrera lehenengo zikloan. Beti Ikastola honetan.

**Irakasle 4:** Ni 17 eta beti lehenengo eta bigarren mailan (Lehen Hezkuntzan). Beti Ikastola honetan.

##### IDAZKETAREN INGURUKO GALDERAK

###### **A. Idazketa lantzeko jardueren eta lan egiteko moduaren inguruan:**

**1.- a) Zeintzuk dira idazketa lantzeko egiten diren jarduera nagusiak?**

**Irakasle 4:** *A ver* ongi esaten dudan, igual saiatzen gara igual beti ez dugu lortzen baina beti saiatzen gara idaztea zerbaitetarako, idaztea helburu batekin, ez? Hori bai. Orduan esaten diegu idazten dugunean dela komunikatzeko eta orduan zerbait komunikatu, orduan beti edozein egoera probesten dugu idazteko.

**Irakasle 3:** Bai, hasten gara hasiera hasiera baldin bada hasten gara hitzekin, egiten ditugu erosketara joateko zerrenda, gurasoei esateko ohar txikiak, gonbidapenak... Beti hitzetik gero ya esaldira. Baina hasiera hasieran hitza, bai.

**Irakasle 4:** Hitza bai, oraindik nire gelako batzuk daude hitzan eta gero ere kontzientzia fonologikoa hori *a sacco*.

**Irakasle 3:** Bai hori lantzen dugu pila.

**Irakasle 4:** Eta beti hasten gara ezagutzen dutenetik, orduan zer ezagutzen dute? Izenak. Haur Hezkuntzan beti haien izenak landu dituzte orduan mantentzen ditugu Haur Hezkuntzako izenen txartelak eta horiekin jolasten dugu: *memory*, deskribapentsoak egitera, izenak idatzi lagunenak, ahorkatua... Horrelako jolasak egiten ditugu eta aldatu letrak, silabak aldatu.

**Irakasle 3:** Mila gauza baina izenarekin. Gero familiaren izenarekin, hasi bere izenarekin.

**Irakasle 4:** Eta gero hiztegia. Beti gai bakoitzarekin daukagu hiztegi bat eta orduan hitz horiek ikasten dituztenez buruz ba desmontatzen ditugu ere ordenaz aldatuz, silabak kendu, silabak gehitu, silabak ordezkatu... Horrela.

**b) Ba al dago orden finkoren bat jarduera horiek planteatzeko / planifikatzeko, hilean / hiruhilabetean?**

**c) Zergatik egiten da horrela?**

**Irakasle 4:** Ez, ez dugu hori egiten eta nik uste dut lan hori ongi legokeela.

**Irakasle 3:** Baina beti bada taldearen arabera. Niri baliogarria dena niretzat agian [Irakasle 4]-ren taldearentzat ez da, orduan guk badakigu hasten garela etortzen direnetik haien izenarekin eta segun nola kontrolatzen dituzten... *Es que* batzuk ez dituzte besteen izenak ezagutzen, beste batzuk ezagutzen dituzte denak eta familiarena... Orduan ikusten dugu taldea nolaka den eta hortik badakigu dela izena, hitza eta esaldiak. Horrela baKoitzak hartzen du taldeak eskatzen duen bidea.

**2-. Nola sustatzen duzue idazketa, hau da, noiz edo zein denbora/momentu erabiltzen da/dira hau egiteko?**

**Irakasle 4:** Idazketa etengabe, egun santu osoan, etengabe etengabe... Edozer egiteko. Ekarrri behar duzu materiala, idatzi. Egin behar duzu... dena. Idazten dugu etengabe. Matematiketan idazten dute, ingurunen idazten dute, euskaran idazten dute, inglesean idazten dute, musikan idazten dute, osea.

**Irakasle 3:** Idazketa egia da asko lantzen dela. Askok. Irakurketa ez. Irakurketa behin ikasita, irakurtzen, oso gutxi irakurtzen dugu gelan.

**Irakasle 4:** Klaro *es que* oso zaila da ere irakurtzea denon artean, ez?

**Irakasle 3:** Oso zaila da. Orduan oso oso inportantea da eguneroko irakurketa etxean eta ez dugu beti lortzen nahiz eta gurasoei esan beti zer garratzitsua den zer hortan praktikatzen

dute... Gelan bale, tokatzen zaizu: “zer jartzen du hemen? zer egin behar dugu?” eta irakurtzen dute bi lerro baina holan sistematikoki ez dugu irakurtzen orduan horregatik da hain inportantea etzekoa. Idazten berriz beti gaude idazten, beti gaude idazten.

**3-. Idazketarekin harremana duten, edo idazketan oinarritzen diren jarduerak klasean burutzean ikasleen gainean egon ohi zarete hauek egiten dutena ikuskatzeko ala bakarrik uzten dituzue? Bakarrik utziz gero, ze feedback mota ematen diezue ikasleei? Adibidez, egindakoa jaso eta komentatu? Ikasle bakoitzaren koaderno/portfolio propio batean gorde? Koebaluazioa (binaka jarri eta elkarri zuzendu)? Errubrika antzeko zerbaiten bidez?**

**Irakasle 4:** Segun helburua.

**Irakasle 3:** Klaro *es que* ni adibidez orain *ya* bigarren mailan idazten dutena aztertzen dut beraiekin. Gehienetan oraindik banaka. Hurrengoan, pixka bat beranduago baina kurtsoa amaitu gabe, bukatu baino lehenago jarriko dugu eredu bat batek idatzitakoa eta hori nola hobetuko genuke. Baina momentuz nik hartzen ditut eta *a ver*. Orain daude momentuan non ikasten ari dira, idazten hasi baino lehenago pentsatzen, ze klaro hasten dira berehala idazten eta gero bukatzen zaie. Orduan pentsatzen dute, idazten dute eta gero erreparatzen dute. Erreparatu eta gero nirekin. Saiatzen naiz guztiekin egiten. Batzuekin eraman behar dut etxera eta gero komentatzen dut beraiekin, baina bestela momentuan. Konturazteko momentu hontan gaude puntuazioa, maiuskula eta ez dakit zer. Orduan hori, eta ordena, esaldiaren ordena. Horrekin nahiko. Ni *ya* gero egiten badute idazten badute ortografia ez. Bakarrik hiru gauza horiekin ikusten dut beraiekin eta nire asmoa da oportetarik bueltan *ya* [Aste Santuko oportei deritzo] hartzea bat hola, baina klaro hortarako haiek ulertu behar dute ez dela ezer pertsonala. Orduan hor dago beste tanketa bat.

**Irakasle 3:** Ah! Baina lehenengo mailan...

**Irakasle 4:** Bai lehenengo mailan ere banaka baina gaude hitzan klaro, gaude hitza eta bueno esaldiak ere. Orduan orain gaude minuskularekin eta minuskula lantzean egin behar duzu ere banaka giroak ongi egiten dituztela ziurtatzeko eta gero batzuetan, esan dudana, helburuaren arabera batzuetan bai esaten diegula: libre. Idatzi zure modura eta kentzeko beldurra idazteari ze batzuk “*es que* nik ez dakit” bai, idatzi zure modura eta beti ongi dago eta oso inportantea da ze ikusi behar duzu non dauden. Idazketak baditu hainbat fase eta pasa behar dute fase guztietatik, bestela saltatzen badute bat ez dute ongi ikasiko. Orduan zuk ikusi behar duzu ze fasean daude, esan duzu *feedback*-arena eta batzuetan da libre

idatzi, zuk jaso, ikusi non dagoen bakoitza eta beti, orduan beti esan zer egin duen ongi “uy ikusi dut letra batzuk jarri dituzula, ba begira” eta nola pasa hurrengo fasera.

**Irakasle 3:** Bai, batzuetan da libre eta horrela uzten duzu edo beste batzuetan da ba esanez *venga* begira ahozkatuko dizut ea zerbait falta den. Zuk ahozkatzen diezu eta esa... “ah! falta da ez dakit zer! pixka bat kontzienteago izateko.

**Irakasle 4:** Hori da, hori da.

#### **4.- Zein material erabiltzen duzue idazketa indartzeko edota umeei laguntzeko?**

**Irakasle 4:** Ba materiaka Kimu.

**Irakasle 3:** Guk dugun metodologiarena. Aurten ez, orain dela bi urtez berritu zuten. Hizkuntzan orain arte ez dugu hizkuntzan materialik izan, beti gure modura, hau da lehenengo aldia. Baina orain daukagun metodologia Kimu da eta obra literario batean oinarritzen da gaia, gai osoa. Obra literario hori lantzen da, *bueno*...

**Irakasle 4:** Ikasten dute buruz.

**Irakasle 3:** Bai, ipuintxoak dira eta horiekin egiten dituzu, asmatzen dituzu bukaerak, hasierak, deskribatzen dituzu pertsonaiak, aldatzen dituzu esaldietan: ba ipuinean jartzen badu aitona baratzara joaten da egunero, ba zer gertatuko da aldatzen badugu aitona izan beharrean ba amatxo astean behin ez dakit zer... Saiatzen gara pixka bat hori... Eta oso ongi dago.

**Irakasle 4:** Bai, gero ikasten dituzte testu edo... *Bueno* testu baino dira egitura. Egitura batzuk ikasten dituzte eta konturatzen dira hori, zerbait aldatuz gero aldatzen dela bukaera, edo izenburua aldatzen baduzu... Eta orduan barneratzen dituzte horrela. Igual egia da guri ere klaro, guretzat berria denez, gu *ya* oso ohituta geunden: ‘testu mota’ eta zen *como ponponpon* eta gero idazten zuten hobe. Orain da gehio... Esaten duzuna testu mota, jolasten ari gara etengabe eta barneratzen dute beste modu batez baina egia da, bai, ez?

#### **5.- Gela barruan, idazketarekin erlazionatuta dagoen jarduera bat egiterako garaian:**

- a. **Bakarrik uzten dituzue nahi dutena idazten ala hasi baino lehen gogoratzen diezue ze urrats eman behar duten (hau da, andamiajea eskaintzea)? Hala bada, zergatik?**

**Irakasle 4:** Bai, ze urrats eman behar dituzten.

**Irakasle:** Bai, guk orain, normalean egiten duguna batzutan da bakoitzak nahi duena eta beste batzuetan egiten dugu idazketa kolektiboa. Arbelan idazten dut nik haien artean sortzen dena. Behin ikusita zer sortu den, izan daiteke hasieran bazen kopiatzen zuten eta orain *ya* kentzen da eredu hori eta bakoitzak sortzen du berea. Baina *ya* badakite buruan, nola sortu dugun nahi duguna es *que* bestela batzuei izugarri kostatzen zaie, jada bakarrik asmatzea. Guretzat esaten dugu baina oso erraza da, asmatu, baina batzuk, batzuk ez dakite zer asmatu. Orduan askori ematen badiozu eredu bat, badakite gutxi gorabehera nondik joaten diren eta hasieran kopiatzen genuen, kopiatzen zuten denon artean sortutakoa baina orain *ya* ez, orain egiten dugu ezabatzen dugu eta *venga* orain zuek.

**Irakasle 4:** Bai, hori da. Lehenengo mailan egiten dugu beti beti lehenengo ahoz, denok esaten dute edo esaldi bat bada ere, eta gero [Irakasle 3]-k esaten duena, batzuetan luzeagoa bada idazten dugu arbelean eta nahi duenak kopiatu aurretik eta nahi duena asmatu berria. Beste batzuetan esaldi motz bat bada, ahoz esan duzuna orain idatzi. Baina lehenengo ahoz ze bestela... Hori da planifikatzen ikastea. [Irakasle 3]-k esan duena, lehenengo pentsatu, gero idatzi eta gero berrikusi, bete behar dituzte hiru pauso horiek.

#### **b. Diktaketak egiten dituzue? Baiezkoa bada, zergatik edo zertarako?**

**Irakasle 4:** Nik bai, lehenengo mailan hitz diktaketak ikusteko ea ze silabak jaten dituzten, ea ze silabak ordezkatzeko dituzten... Osea hitzena.

**Irakasle 3:** Nik onartzen dut orain bigarren mailan lehenengo mailan egiten nuen baina bigarren mailan eskapatzen zait.

#### **c. Letren kopiaketak egiten dituzue? Zergatik?**

**Irakasle 4:** Letren kopiaketak *ya* ez. Kaligrafia *ya* lantzen dugu... Konturatu ginen duela urte batzuk konturatu ginen... Lehen egiten genuen letraz letra minuskula giroa... Bai koadernotxo horiek eta behin konturatu ginen ez zela beharrezkoa. *Ya* idazten zuk nahi duzuna joaten zara idazten, hori bai arbelean denon artean letren giroak oso ongi, baina ez.

**Irakasle 3:** Ez, nik ez. Gero ere ni konturatu naiz zenbat kostatu zaigun erredondila hori egiten ikastea eta orain ari dira letra aldatzen. Orduan azkenean mezua zein da, idazten duzuna beste batek irakurtzeko da, orduan edo zuk zeuk, baina batzuetan idazten dute eta haien ere ez dute ulertzen. Orduan mezua da idatzi, idazten duzuna beste batek irakur dezala, irakur dezakeela. Bestela, zertarako molestatzeko zara? Baina hori da, landu dugu hainbeste eta orain baditut gelan hiru beste modu batez hasi direnak.

**Irakasle 4:** Nire gelako batzuk hasi dira *ya* desberdin, hasieratik. *Pues venga*. Uzten diegu, bai.

**6.- Idazketarekin jarraituz, eskola honetan borragoma erabiltzeko aukerarik ematen al zaie ikasleei?**

**a) Ezezkoa bada, zeintzuk dira arrazoiak?**

**b) Eta zein kurtsotatik aurrera erabil dezakete borragoma? Zergatik desberdintasun hori?**

**Irakasle 3:** Bai.

**Irakasle 4:** Bai. Etengabe, etengabe borragoma da *vamos...*

## **B. IDAZKETAREN LEHENENGO HASTAPENETAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK:**

**7.- Badaude idazketan hasteko prozesuan eragina duten faktoreak?**

**a. Etxean familiaren laguntza jasotzeak eragina dauka?**

**Irakasle 4:** Ez dakit...

**Irakasle 3:** Nik ez dakit eragina duen. Nik bakarrik kontrolatzen dut irakurketarena. Idazketan ez du... Normalean ez dute egiten eta ez badiegu bereziki laguntza eskatzen "aizu begira ba giroetan zalantza handiak ditu, ba *venga mesedez*" baina bestela guk ez diegu familiei... Irakurketa teoriaz eragina du baina badakigu ere batzuk egunero irakurtzen dutenak, *pues bueno*, ez dirudi eta beste batzuk inoiz ez dute etxean irakurtzen eta inoiz irakurtzen ez dutenak eta *pues hori*.

**b. Familiaren ikasketa-mailak, hau ezagutzeko aukera izatekotan, eraginik badu?**

**Irakasle 4:** Nire ustez, gure zikloan ez eta gainera ez luke behar, izan behar, hori uste dut.

**Irakasle 3:** Bai, horrela pentsatzen dut ere bai. Ze azkenean orain etxean egin behar dutena bada egunero irakurri eta hori edonorekin egin dezakete nahiz eta ikasketak ez izan.

**Irakasle 4:** Eta hor ez dakit, nik uste eskolan erakutsi behar dizkiegu gauza horiek eta etxean pixkat lagundu, baina lagundu planifikatzen ez, ez... Eta gainera maila horietan, ez? Nik uste dut ezetz.



- c. **Ikasleen artean anai-arreba nagusiak dituzten eta ez dituztenen artean desberdintasunik ikusten al da idazten hasteko garaian? Laguntzarik jasotzen al dute ikasleek haien anai-arreba nagusiengandik?**

**Irakasle 3:** Ez dakit, gurean batez ere badituzte anai-arreba txikiagoak.

**Irakasle 4:** Nirean badute handiagoa. Nik egia esan batzutan niri gurasoek, ni ez naiz inoiz konturatu, ez dut inoiz ezta pentsatu baina bai gurasoek esaten... Niri bai esan didate noizbait “es *que* zaharrenak egiten du etxeko lana eta honek nahi du”. Hori bai esan didatela baina *sin más* nik ez dut hori aztertu inoiz.

**Irakasle 3:** Baina adierazgarria ez da guk esateko, joe nabaritzen da.

**Irakasle 4:** Ez, nik ez, nik ezta.

- d. **Lehen Hezkuntzako maila bereko ikasleen artean idazten hasteko garaian desberdintasunik ikusten al da jaiotza-dataren arabera, hau da, urtarril-otsaileko ikasle eta azaro-abenduko ikasleen artean?**

**Irakasle 4:** Hori igual bai, igual bai. Esan daiteke, bai.

**Irakasle 3:** Heldutasun kontua da. Orduan badaude urterilekoak oso umeak direnak oraindik baina orokorrean bai abendukoa izanda edo urtarrilekoa izanda normalean adin honetan nabaritzen da.

**Irakasle 4:** Bai normalean bai, baina hala ere batzuetan... Da azarokoa eta da oso...

**Irakasle 3:** Hori da, urte hasierakoa izateak ez du ziurtatzen heldutasun maila duela, eta ere bai, orduan urte bukaerakoa izateak ez du azaltzen heldutasun falta hori.

**Irakasle 4:** Hori da, baina bai nabaritzen da. Batez ere lehenengo mailan, bai. Baina bueno, ez da matematikoa baina bai.

- e. **Desberdintasunak igartzen dituzu, generoaren arabera, hau da, neskatoen eta mutikoen artean idaztean?**

**Irakasle 4:** Nik ez, zero, batere.

**Irakasle 3:** Nik ez, ez. Adin honetan behintzat ez.

### **C. IDAZKETAREN EBALUAZIOA:**

## **8.- Zer nolako irizpide eta tresna jarraitzen/erabiltzen dituzue ebaluatzeko eta haien idazten ikasteko prozesua aurrera egiten ari duela jakiteko?**

**Irakasle 3:** Guk tresnarik ez ditugu erabiltzen. Esan nahi dut, guk zer egiten dugu, behatu. Etengabeko behaketa egiten dugu. Guk hartzen ditugu gure oharrak, ikusten dugu, batzuetan gordetzen dugu haiek idazten dutena... Baina bada behaketa. Ez dugu zehazki... Eta gero nahiko subjektiboa da. Heltzen da ebaluatzeko momentua eta bueno, *según* zer ikusten duzun erabakitzen duzu mailari dagokion maila duen edo ez.

**Irakasle 4:** Nik uste dut eta batez ere da oso, *bueno* nik behintzat horrela esaten diet familiei eta da garrantzitsuena, berdin du ze maila duen, aurrera joatean beti. Ikusten duzunean ez doala aurrera, hor egon daiteke arazo bat. Ez dakigu zein baina orduan bai. Baina erritmoa *bueno*, bakoitzak berea du, baino aurrera egitea beti bai. Hori da ikusten duguna.

### **D. TEKNOLOGIA BERRIAK ETA ETORKIZUNA:**

## **9.- Nolako eragina izan dute teknologia berriek idatzen ikasteko prozesuan?**

**Irakasle 4:** Igual, ez da justo, ez dakit, igual ez dakit azaltzen. Nik uste dut teknologia berriek ematen dutena da oraintxe bertan lortzen ahal duzun zerbait, *inmediatez*, orain eta orduan bizi dira horrela gaur egungo haurrak. Dena lortu dezakete orain *pin, pin, pin...* Eta klaro badaude ikasketa batzuk irakurketa eta idazketa adibidez behar duena kriston esfortsua, orduan ez daude ohituta. Ohituta daude... *“Ahorita lo quiero lo quiero ya”* eta irakurketa idazketa ez, zenbakiak ez... Orduan klaro ba igual falta zaie pixka bat ez dakit, ardura hori... Ez dakit hitza den ardura...

**Irakasle 3:** Bai, *es que* ez dakit galdera nondik doan. Esan nahi dut, teknologia berriek ez digute guri laguntzen prozesu horretan. Ez, guk ez ditugu erabiltzen. Baina bai ikusten dugu oso argi [Irakasle 4]-k esaten duena. Bada, orain da dena bisuala, bisuala, bisuala baina momentukoa eta bat batean eseri behar dira deszifratzeko kode bat eta izugarri kostatzen zaie. Errezena da “ez dakit”, ez, *ya está*. Baina, gure alde (teknologia berriak) ez daude, hori argi dago, guk ez dugu erabiltzen ezer ez.

Ez dute pazientziarik, esfortsurik, nik horretan ikusten dut. Baina nik uste irakurketa idazketan justo nik uste ezetz. Hasieran batez ere, ez.

## **10.- Uste duzu etorkizunean idazten ikas-irakasteko prozesua aldatuko dela? Zergatik?**

**Irakasle 4:** Nik espero dut ezetz.

**Irakasle 3:** Espero dugu ezetz.

**Irakasle 4:** Osea, esan nahi baldin baduzu ea egingo den tablet-ekin, nik espero dut ezetz. Ze nik esaten dut, zer izango gara mundu bat non ordenagailuak izorratzen dira eta ez gara gai izango idazteko zerbait edo irakurtzeko, ez dakit.

**Irakasle 3:** Gu ere, gure mailan garrantzi handia ematen diogu irakurketa idazketari, idazketari ere bai. Gero egia da, orain *ya* laugarren mailan ari dira ordenagailuekin. Orduan *ya* idazteko trebetasun hori, fisikoa dena... Galtzen du garrantzi hori. Gu saiatzen gara ulergarri idaz dezatela eta abar eta gero *ya* gutxi barru idazten dute dena ordenagailuz. Orduan, hori bai aldatzen dela. Orduan asko kostatzen zaion bati, ze puntutaraino merezi duen eskatzea kriston esfortzua, gero...

**Irakasle 4:** Bai aldatuko da nik uste dut, *bueno ya* aldatu da, ze orain nork idazten du gutun bat? Orain dena *ya* da mezua, *ya* pasa da modan egunkaria ere, egunkaria jendeak irakurtzen du ordenagailuan...

**Irakasle 3:** Bai aldatu da pila bat.

**Irakasle 4:** Aldatu da eta aldatuko da, bai bai.

**Irakasle 3:** Eta irakurtzen nahiz eta beste tresna berrietan irakurtzen jarraituko dute, baina idazketa da...

**Irakasle 4:** Irakurketan aldatuko da modua baina ikasi beharko dute bai. Baina idazketa, bai.

**Irakasle 3:** Liburuak haiek ere, *ebook*-en irakurtzen dute.

**Irakasle 4:** Bueno, baina ez dituzte ilustrazioak, ez dakit.

**Irakasle 3:** Etorkizuna aldatuko da.

**Irakasle 4:** Bai bai bai, zalantzarik gabe.

---

## 5. eranskina - Errekabarri eskolak erabiltzen dituen baliabideak.

Taula 2. Errekabarri eskolak erabiltzen dituen baliabideak.

<b>ERREKABARRI ESKOLAKO MATERIALA</b>	
<b>Areneroa</b>	Harea edo hondarra duen kutxa, bertan letra edo silabak idatzi ditzaten behatzekin.
<b>Arbel txikiak</b>	Errotulagailuekin idazten dute bertan eta erraztasunez ezabatzeko aukera dute.
<b>Lijazko letrak</b>	Behatza gainetik pasatzeko haurrek jakiteko nola edo zein modutan erabili behar duten arkatza ondoren letra hori idazteko.
<b>Herradura</b>	Alfabetoko hitz guztiak dituen ohol bat da eta bertan kontsonante eta bokal guztiak irudi batekin agertzen dira.
<b>Soinuen kutxa</b>	Kaxoi txikiz osatutako kutxa handia da. Alfabetoko letra bakoitzak kaxoi bat du eta barnean letra horrekin hasten den objektu bat biltzen du.

## 6. eranskina - Kimu proiektua.

### 6.1. 3. gaiko obra literarioa: "Badauzkat nire zulo txoan..."



11. Figura. 3. gaiko obra literarioa.

### 6.2. Ikasleen koadernoak



12. Figura. Ikasleen koadernoak.


### 6.3. Ikasleen koadernoaren jarduerak



13. Figura. Amestu badezakezu... Lortu dezakezu!.




14. Figura. Nor da nor? Idazleak.



15. Figura. Nor da nor? Ilustratzaileak.




16. Figura. Istoriomisterio... 1.



17. Figura. Istorio-misterio... 2.




18. Figura. Asmazak asmazan...



19. Figura. Nahas-mahas.



#### 7.4. Bingo silabikoa




20. Figura. Bingo silabikoa.

#### 6.5. Dominoa



21. Figura. Dominoa.

#### 6.6. Jolasetarako hiztegi txartelak



22. Figura. Hiztegi txartelak.